

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitz / 2005eko abenduaren 2a / 739. zenbakia

EUSKARA / Euskararen Nazioarteko Eguna da bihar

Euskararen biziraupena aldarrikatu, indartu eta bultzatzeko eguna, bihar

UBANE MADERA

Euskararen Nazioarteko Eguna da bihar, abenduak 3. Eta hori ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte, goizerako Musakolan, eguerdirako AEDko tabernan eta arratsalderako, Herriko Plazan. Besteak beste, Euskararen Eguneko boligrafoa opari egingo dute arratsaldean.

Goizean, Txatxilipurdi elkarteak antolatuta, areto futbol txapelketa jokatu dute zenbait gaztek. 10:00etan hasiko dira

partiduak. Musakolako kiroldegian dute hitzordua.

Gero, 14:30erako bazkaria antolatu dute gazteendako. Hori AEDko tabernan izango da. Pasta, oilaskoa eta pastela izango dute menua.

Bazkal ostean, berriz, 16:30ak inguruan ikuskizun sorpresa egingo dute AEDko tabernan bertan eta goizeko areto futbol txapelketako sariak banatuko dizkiete irabazleei: "sari zoragarriak eta motibagarriak" izango direla esan digute Txatxilipurdi elkarteok.

ARRATSALDEKOA, PLAZAN

Era berean, eta baita ere Txatxilipurdiren eskutik, umeendako lantegiak egingo dituzte 16:30etik 18:30ak arte, Herriko Plazan: musuak margotzeko lantegia, txapa lantegia (euskararen aldeko leloak landuko dituzte) eta eskulanak egingo dituzte. Gainera, mural erraldoia egingo dute; jakina, euskara gai moduan hartuta.

ARREPEREN EGITARUA

Euskararen Eguneko ospakizunek jarraipena izango dute Arrasateko Euskalgintzaren (ARREPE) eskutik. Hala, 18:30ean hasita, Herriko Plazan, hantxe bertan erretako gaztainak banatuko dituzte; baita taloak ere. Eta sagardoa ere izango da, laguntzeko.

Meriendatxo hori girotzeko, berriz, Portaloia kantu taldeak euskal kantuak abestuko ditu.

EUSKARAREN EGUNEKO BOLIGRAFOA

Halaber, plazara doazen herritarrei eskatuko diete *Zergatik dago euskararen egun bat?* esaldiaren gaineko hausnarketa egitea. Trukean, Euskararen Eguneko boligrafoa oparituko diete.

Era berean, ibarreko Debagune elkartearen eskutik boligrafo bera banatu dizkiete Arrasateko (eta ibarreko) 12-18 urte bitarteko ikasle guztiei. Bide batez, haiei ere eskatu diete hausnarketa egitea euskararen egunaren beharraren gainean.



Prentsaurrekoan Alaitz Morras, Markel Elortza eta Joxepa Arregi Garratz.

Unai Parot presoarekiko "gorrotoa" dutela salatu dute

U.M.

Unai Parot preso arrasatearraren egoera salatu zuten martitzenean, prentsaurrekoaren bitartez. Besteak beste, salatu zuten "kartzela-aldi izugarria" jasaten dabilela. Mobilizazioak iragarri zituzten.

Prentsaurrekoaren bitartez, berretsi egin ditu Arrasateko amnistiaren aldeko mugimenduak Unai Parot presoaren gainean egindako salaketak. Hala, salatu du "2041era arte luzatuko litzatekeen 60 urteko kondena" betearazi gura diotela; halaber, "Enrike Letona eta Iñaki de Juan euskal preso politikoei aplikatu zieten joko bera" aplikatu nahi diotela ere salatu du. Horrekin batera, 1990ean Parot atxilotu zute-

netik 2005era bitartean, torturak jasan dituela ere salatu zuten.

JIPOIAK ETA MEHATXUAK

Prentsaurrekoan emandako datuen arabera, preso daramazan 15 urteotan hamar jipoi baino gehiago eman dizkiote Unai Paroti. Horietatik batzuk Auzitegi Nazionalen bertan: "2005eko azaroaren 17an Auzitegi Nazionalen jasotakoa izan zen azkena". Jipoez gainera, presoak laguntza medikorik ez duela ere salatu zuten, arrazoi bako zigorrak ezartzen dizkiotela eta baita ere "mehatxuak, xantaiak, egunero ko ziega aldatetako..." eta hala-koak egiten dizkiotela.

Hala, guztia salatuzko manifestazioa deitu dute gaurko, barikua, 19:00etan, Seber Altube plazatik hasita.



MIKEL LUPIAÑEZ

Institutuko arte batxilergoko 1. mailakoak, Euskararen Eguneko boligrafoa hartzen.

Azeriko gunean etxebizitzak egiteko baimena eman du Diputazioak

U.M.

Kontua da Diputazioak partzialki baietsi duela Arrasateko Udalaren errekerimendua. Hala, Diputazioak zehaztutako baldintzak betez gero, Azeriko gunean etxebizitzak eraiki ahal izango ditu Udalak.

Gaur egun Polmetasa lantegia dagoen lekuan 220 etxebizitza eraiki gura ditu Udalak. Horietatik 66 babes ofizialekoak izango dira (%30). Eta hori egiteko; Polmeta-

sa Uribarri auzora eramango dute. Han, Ibarretan, 13.000 m²-ko lantegia eraikiko dute, 250-325 lanposturendako lekuarekin. Dagoeneko hasi dira espazio prestatzen pabilioi berria eraikitzeko.

DIPUTAZIOAK ATZERA BOTA

Egitasmo hori guztiori aurkeztu zion Udalak Diputazioari. Baina hark atzera bota zuen abuztuan; izan ere, haren esanetan ez zuen betetzen legeak ezarritako espazio libreen legea. Bestela esanda, legeak esaten duena baino espazio

libre gutxiago zeudela proiektuan. Horren aurrean, eta proiektuaren garrantzia kontuan hartuta, irailen Udalak errekerimendua aurkeztu zion Diputazioari.

Orain, Diputazioak errekerimenduari erantzun dio esanez partzialki baietsiko duela. Eta Udalak 220 etxebizitzak eraiki ahal izango dituela Azerin, baldin eta espazio libre gehiago ipintzen baditu. Hala, Udala aztertzen dabil non kokatu espazio libreok. Edozelan ere, proiektuak aurrera egingo du eta eraiki egingo dituzte etxeak.



Uribarri auzoan badabilta espazioa egokitzen, Polmetasaren pabilioia eraikitzeko.

ENPRESAK/ AMATeko fundatzaile Bixente Urtzelai hil egin da

Ezerezetik eta umiltasunez AMAT enpresa sortu zuen Bixente Urtzelai joan egin zaigu

UBANE MADERA

Joan den astean, AMAT lantegi-ko fundatzaile Bixente Urtzelai hil egin zen, 84 urterekin. 60ko eta 70eko hamarkadetan Arrasaten berebiziko garrantzia izan zuen lantegia da AMAT; izan ere, lantegia goren egon zenean, 400 bazkide ingururi eman zien lana.

Are gehiago, Arrasaten laugarren lekua bete zuen enpresen artean.

Hala ere, orain arte, ez sortzaileei ez lantegiari berari ere ez diete aitortu izan duen garrantzia eta ez diete esker onik erakutsi. Hori dela eta, Ramon Aperribai-ekin izan gara, AMATen gainean zerbaite gehiago jakin guran. Aperribai AMATen lanean ibili zen gerente administratibo moduan, Bixente Urtzelaiaren ondoren. Hala ditu gogoan hasiera haiek:

ELMA-TIK AMAT-ERA

"1962an, enpresak sortzeko aukerak zeudenean eta herrian kooperatiben filosofiarekin enpresak sozializatzeko zegoen mentalitatearekin, Bixentek ELMATik irte-teko pausoa eman eta hodiendako osagarriak (*fittings*) egiten zituen kooperatiba proiektatu zuen; halako produktuen eskara handia zegoen merkatu nazionalan eta Europan.

AMATek (Accesorio Maleable de Tubería) bere kabuz ekin zion ibilbideari, Euskadiko Kutxatik kanpoko kooperatiba moduan. Izan ere, Arrasateko kooperatibek erabakita zuten laguntzarik ez ematea herriko kooperatibek egiten zituzten produktu bera egiten zuten enpresa berriei. Horregatik ez zuen inolako laguntzarik izan". Halaber, Ramon Aperribai-kin kontatu digu makina bat deskalifikazio entzun behar izan zituztela Arrasaten: "Proiektua kimera hutsa zela, ez zela benetako kooperatiba, porrot egin behar zuela, gaitasunik ez genuela..."

Baina profetia beltz haiek ez ziren bete, eta, zailtasunak zailtasun, fabrikak aurrera egitea lortu zuen: "Lan-bazkide guztiak ziren enpresako bazkide, ez genuen bazkide kapitalistarik onartu (eskaintza onak izan arren) eta bazkideen ekarpena mugatu egin genuen, halako oreka bat gordetzeko". Are gehiago, lehenengo langile haiek Bixente Urtzelai-engan egundoko sinesgarritasuna zutela esan digu: "Lantegia sortu baino lehenago ipini zuten dirua bazkide izateko". 23 langile ziren orduan. Eta modu hartan, Otalora kaleko Argi tindategian hasi zuen AMATek ibilbidea, lehen esandako moduan, 1962an.

ARGI TINDATEGITIK URIBARRI AUZORA
Hala, 1963ko urtarrilaren lehen zuzendaketa eta lehenengo zuzenda-



RAMON APERRIBAI

AMAT bedeinkatu zuteneko argazkia, 1964an; eskumakoa da Bixente Urtzelai, Urribarriko parrokoa erdiko eta atzekoa Aperribai.

ritza batzordea eratu zituzten. Bixente Urtzelai ez zuten ez kudeatzaile ez presidente izendatu, hark ez zuelako halako kargurik gura; zuzendari tekniko kargua hartu zuen. Hasierako 23 langileetatik 40ra handitu zen lantaldea. Hala, Argi tindategia txiki geratu zitzaizen eta Urribarrin lursaila erosi zuten, Mendibarrenen, pabilioi

berria eraikitzeko. Bixente Urtzelai berak egin zituen pabilioiaren planoak. Baita etorkizunean enpresak berak erabili beharreko zenbait elementuren diseinuak ere. Hark dezente lagundu zuen AMATen garapenean, kostu asko gutxitu zituen-eta.

Bestalde, esan beharra dago aurreikuspen-fondo soziala ere

ezarri zutela 1963an bertan, Lagun-Aro bezala. Ramon Aperribaiaren esanetan, ederki asko funtzionatu zuen iraun zuen bitartean.

ARRASATEKO KOOPERATIBARA

1964rako dezente handitu zen AMATeko lantaldea: "Ordurako 253 langile ginen eta enpresak sail edo atal guztietan funtzionamen-

du osoa zuen". Hala ere, Aperribai-ko gogoan du 1964-65 eta 66 urteak gogorrak izan zirela, lan ugari egin behar izan zutelako. Baina lan hark fruituak eman zituen, eta, AMATek zituen zor guztiak kitatzeaz gainera, enpresa irabaziak ematen hasi zen.

1966an, berriz, kooperatibeko aurreikuspen-fondoek, legez, mutua izatera pasatu behar zuten. "Haren ondorioz, eta Arrasaten geundenez eta kooperatiba gineenez, pentsatu genuen gure arteko elkartasuna ezinbestekoa zela eta erabaki genuen Lagun-Aro mutuan sartzea eta, era berean, Euskadiko Kutxan sartzea, bazkide. Halaxe egin genuen, baina AMATek bere autonomia gordetzea lortu zuen eta izugarriko irabaziak lortzen zituen".

Baina 1974an desadostasunak sortu ziren "eta deskalifikazio pertsonalak guk egindako lanari". Haren ondorioz, AMATeko zuzendaritzak —Ramon Aperribai eta Bixente Urtzelai— dimittitu egin zuen.

UNE LATZAK

Bien dimisioa onartu zutenetik hurrengo hilabeteak gogorrak izan ziren biendako. Kooperatiban kargu berria ipiniko zitelakoan zehuden, "baina zuzendaritzaren asmoak bestelakoak izan ziren. Euren hartu zituzten gure karguak eta hiru hilabetez bilera gela batean izan gintuzten, telefono deiak debekatu egin zituzten, baita kanpoko zein barruko korrespondentzia ere. Ez ziguten lanik eman. Egoera haren aurrean, Ramon Aperribai (36 urte zituen orduan) enpresatik alde egin zuen. Bixente Urtzelai (54 urte), berriz, 60 urtera arte jarraitu zuen, erretiroa hartu zuen arte "egoera jasanezina izan zen, baztertu egin zuten eta gaixotzen hasi zen. Agur esaterakoan zera esan zidan: 'kontzientzia lasai dugu eta eskuak garbiak. Jainkoak konpentsatu egingo digu egin dugun lan guztia'".

Ez dakigu Jainkoak hala egingo duen; badaezpada ere, merezitako esker ona eman diezaioagun Bixente Urtzelairi.

Bixente Urtzelaiaren gaineko zenbait datu




Arrasatearra sortzez, gaztetan Armengol irakaslearekin egin zituen ikasketak. Geroago, ELMAren bulego teknikoan lan egin zuen. Aita Basilio izan zuen

ondoa, bereziki, galdategi kontuak erakusten. Hari esker lortu zuen Bixente Urtzelai bere maisutza esparru horretan; adituen esanetan, Gipuzkoako onenetari-

koa zen. "Pertsona nekazina zen, konstantea bere printzipioetan, lanerako gaitasun handia zuen eta oso arduratsua zen". 43 urterekin sortu zuen AMAT.

Buru argia izateaz gainera, Bixenteren eskuzabaltasuna nabarmendu du Aperribai: "Gure produktuei marka ipini behar zitzaizen eta Urtzelaiaren U ipini genien. Baina pentsa zelakoa zen Bixente; baldintza moduan ipini zigun marka hura denondako izango zela, eta hori islatzeko, U zirkunferentzia barruan sartu zuen".


MODAYANG
Europa, zapatak eta osagarriak
Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.
Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETU.

RESUSTA
Karririkiri
BERRITUA
Opariak
Etxeko tresnak
Erdiko kalea 38 • Tel.: 943 79 01 07

Laneko ezbeharrak geldiarazteko premia dela eta, guztiak ados

U.M.

Ezker Batuak aurkeztu zuen "Laneko ezbeharrak geldiarazteko premiari buruzko mozioa", eta aho batez onartu zuen udalbatzarra. Astelehenean egin zuten osoko bilkura. Horrez gainera, 2006ko autotaxiaren tarifei onspena eman zieten eta etxez etxeko zerbitzua berabari izan zuten.

Mozioaren gainean, lau puntu onartu zituzten zinegotziek, guztiak ere Arrasaten aplikatu beharrekoak. Batetik, erabaki zuten prebentziorako neurriak betetzen ez dituzten enpresak egotea gaitzetsi beharko duela Udalak. Onartu zuten, baita ere, Udalak egiten dituen kontratazio guztietan (zuzenekoetan eta zeharkakoetan) "prebentzioa sustatu" behar dutela eta prebentzio planak egin eta haiek bete egiten direla zaindu beharko dutela Udalak.

Hirugarren puntuan onartu zuten "langileen aldiberekotasuna ahalik eta gehien murriztu" egin behar dela eta horretarako, besteak beste, azpi-kontratazioa arautu egin behar dutela. Hala ere, adostu zuten baita ere enpresei prebentzio-neurri berberak eskatu behar zaizkiela; haiek ezin dutela katean azpi-kontrataziorik egin eta Udalak ez dituela kontratatu behar prebentzio-arauak hausteagatik zehazpen larriak jaso dituzten enpresak.

Azkenik, konpromisoa eskatu zieten erakunde, administra-



MIKEL LUPIAÑEZ

Obrek prebentzioa zainduko dutela adostu zuten; irudian, Zerrajerako lanak.

zio, ugazaba eta sindikatuei "enpresetan eta administrazioetan prebentziorako kultura sustatzeko eta odoljariora eteteke".

JARRAIPENA EGITEKO ASMOA

Horren harira, gai hori lantzen zebiltzala aprobeztatu zuen EBk salatzeke Udalak kontratatutako zenbait obrek ez dituztela osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako hitzartutako baldintzak betetzen. Erdiguneko zenbait obra egoera horretan daudela esan zuen Ezker Batuak ordezkarri Ander Rodriguezek.

Horrez gainera, adierazi zigun EBk zaindu egin behar zuela mozioan onartutakoa berba hutsetan ez dela geratzen eta Udalak hitzartutakoa beteko duela.

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Bestelakoan artean, Udalak onartu zuen 2006rako %4 igotzea autotaxiaren tarifikak. Hala geratuko dira: bandera jaistea 2,78 euro. Egunez kilometroko 0,87 euro eta itxaroten egon beharreko orduko 16,64 euro. Gauetz, berriz, kilometroko 1,38 euro eta itxaroten egon beharreko orduko 26,15 euro.

Etxez etxeko zerbitzuarekin lotuta, berriz, onartu zuten Udak zerbitzu hori egokitzea Diputazioak finkatutako zenbait arau berriren arabera emateko.

Bukatzeko, 90ean Uarkapen izandako ezbeharrak berabari izan zuten, Irgala enpresak eta Udalak hitzarmena adostu dutelako. Edozelan ere, prozesu juridikoak aurrera jarraitzen du.

Eguzki plakak ipiniko dituzte kiroldegian eta Jokin Zaitegin

U.M.

Hala hitzartu dute Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE). Horren arabera, Udalak 75.400 euro inbertituko ditu instalazio fotovoltaikoetan. EEEK, berriz, plakak eta material didaktikoa ekarriko ditu.

Hain zuzen ere, Jokin Zaitegi gunean eta Mojatetik kiroldegian ipiniko dituzte instalazio fotovoltaikoak.


Eguzki plakez gainera, instalazioaren datu teknikoan jarraipena egiteko aplikazio informatikoa eta panel informatiboa ere ipiniko ditu Energiaren Euskal Erakundeak. Panel informatiboa hori kalera begira ipiniko dute, jendeak ikus dezan. Udaleko Ingurumen Saitetik jakinarazi digutenez, "instalazioaren datu oroko-

rrak eta uanean uneko datu zehatzak emateaz gainera, energiaren aurrezteari eta energia berriztagarrien aplikazioei buruzko mezuek agertuko dira". Hala, besteak beste, horri esker jakingo dugu eguzki plakei esker zenbat CO₂ ekidin duten isurtzea atmosferara. Izan ere, eguzki plaken bitartez, energia produzitzea lortuko du Udalak, energia garbia. Hala ere, kontsumitzeko energia lortzeaz gainera, Iberdrolari saltzeko ere erabili ahal izango dute.

MATERIAL DIDAKTIKOA

Bestalde, Jokin Zaitegi guneari dagokionez, instalazio fotovoltaikoa ipintzeaz gainera, material didaktikoa emango die EEEK ikasleei eta irakasleei.

Kiroldegiko zein ikastolako instalazioak ipintzeko, asko jota 12 hilabeteko epea du EEEK.



MIKEL LUPIAÑEZ

Institutuko moduko panel informatiboak ere ipiniko dituzte, eguzki plakekin batera.

LABUR

Erakusleihen lehiaketarako abenduaren 16a baino lehen eman behar da izena

Udalak aurtengo erakusleihen lehiaketa abiarazi du, eta deialdia egin du nahi duten saltoki guztiek parte hartzeko. Baldintzak honakoak dira: erakusleihen abenduaren 16rako uzi behar dute gertu eta hala izan abenduaren 31ra arte. Honakoak kontuan hartuko ditu Udalak: irudimena, orijinaltasuna, publizitateko mezuren baldagarritasuna, erakusleihen itxuraren kalitatea eta Santamás eta Gabon giroarekin duen zerikusia. Era berean, erakusleihen ondako ohiko produktuek azaldu beharko dute. Hiru sari presatatu dituzte, bi Udalak eta azkena Ibai Artek: plaka eta 200 euro; 170 euro eta 150 euro. Sariak abenduaren 21ean banatuko dituzte.

Abenduaren 9an, 10ean eta 11n ekitaldi dezente izango dira Bedoñan, auzoko jaietan

Abenduaren 9an, egubakoitza, hasiko dira jaiak. Besteak beste, 19:30ean, patata tortilla lehiaketa egingo dute. Eta horren ostean, mus eta briska saioak, entrenamendu moduan. Abenduaren 10ean, berriz, 11:00etan gaztetxoendako jolasak izango dira, Txaxilipurdiren eskutik; 15:30ean, kale animazioa Detraka taldearekin; 17:00etan txokolate-jana eta 18:00etan mus eta briska txapelketak. 21:00etan, berriz, auzo afaria egingo dute, Errastiko jatetxean, dantzaldi eta guzti. Eta domekan, hilak 11, 12:30ean, meza nagusia izango da eta dantza saioa, Lore Gazteak dantza taldearekin eta 13:15ean, doke txapelketa jokatu dute.

'Arizmendin, euskara plazara!' astelehenean

Euskararen Nazioarteko Eguna eta Xabierko Frantzisko eguna direla eta, ospakizun ekitaldiak egingo ditu Arizmendi Ikastolak, astelehenean. Pregoiak, ikastolako gune guztietan irakurriko dutenak, euskararen nazioartekotasuna izango du hizpide. Horrez gainera, Argitxok gaztetxoek bisitatuko ditu; gazteek, berriz, zenbait ekintza egingo dituzte.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazulatuak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE



Hire liburu saltokiak eskaintza bereziak egin ditu azken asteotan. Azkeneko erosketak egiteko aukera hainbat herritarrendako.

MERKATARITZA/ Gero eta saltoki txiki gutxiago daude herrian

Astean, Hire liburu saltokia eta Kuku janari-denda betirako itxi dituzte

IKER BARANDIARAN

Albiste esanguratsua jaso dugu astean: liburu-denda bakarrenetarikoa eta herriko denda beteranoetako bat itxi egin dituzte. Biek atek itxi dituzte, jabeak erretiratu egin direlako, ez bezerorik ez zutelako.

Aspaldian askotan esan ohi da saltoki txikiak gero eta etorkizun laburragoa dutela. Hori da nagusitzen den joera. Gero eta ohitura handiagoa dago erosketak merkataritza-gune handietan egiteko, gune horiek aisialdirako duten eskaintza dela medio. Arrazoiak arrazoi, azken urteotan saltoki asko itxi dituzte herrian.

Are gehiago, joan den astean, Ibai Arte Arrasateko merkatarien elkarteak oso datu esanguratsuak eman zituen aditzera: esate baterako, arrasatearrek urtean 9.160.700 euro gastatzen dituztela herrikan.

Hala, Ibai Arte arduratuta dago horrekin guztiarekin, eta Gabonetako kanpainaz baliatuta, herritarrei inkesta erantzutea eskatu die, "guk ahalik eta zerbitzu onena emateko, eta beze-

roen ardura nagusiak zein diren jakiteko", azaldu ziguten.

LIBURUEN SALTOKI EZAGUNENA

Badago Arrasaten, besteak beste, liburuak saltzen dituen beste dendaren bat, eta izan ziren beste batzuk, baina Hire izan da erreferentea arlo horretan.

Pilar eta Karmen Ubago ahizpek izan dute dendaren ardura, eta azken 21 urteotan Edurnek lagundu die. Denda erdi liburuz beteta egon da eta beste erdia maleta, poltsa eta larruzko bestelakoekin. "Beti izan dugu denda bitan banatuta. Aspaldi maletak eta halakokak saldu beharrean, oihalak, koadroak eta beste saldu genituen, baina liburuak beti".

Bezeroei dagokienez, "ezin gara kexatu, bizitzeko lain saldu

dugu eta ez gara bezero faltan egon. Oso gustura ibili gara, baina erretiratzeko ordua zen". Hala ere, aurreratu digute "epe ertainean beste liburu-denda bat zabalitzen laguntzeko gestioak egiten" dabilzala.

KUKU, 1934A EZKERO JAKIAK SALTZEN

1934an, Rufino Lasagabaster eta Antonia Untzurruntzaga aretxa-baletarrek Kuku janari-denda zabaldu zuten Erdiko kalean. Angel Lasagabaster semea umetan hasi zen lanean, eta 65 urte pasatxo egin dituen arte ez du erretirorik hartu.

"Lokala norberarena bada, bi lagun bizi daitezke negozio horretaz, baina argi edukita dendaren morroi izan behar dela", azaldu zigun Angel Kuku-k.

"Orain erdialdean beste bi janari-denda besterik ez da gelditzen: Feli eta Bonet", azpimarratu zuen. Kuku-k onartzen du denda ixteak pena ematen diola, baina Hireko ahizpek dioten moduan erretiratzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Bezeroek behin eta berriro esaten diote elkar ikusiko dutela dendatik kanpo.

Bi saltokiek hutsune handia utzi dute herritarren artean; hori agerian gelditu da

Bihar hasiko dute Iratiko eta Arranoko urteurrenaren jaia

X.U.

Irati tabernak eta Arrano elkarteak Santamasetan beteko dituzte 25 urte, eta hori ospatu guran hainbat ekitaldi antolatu dituzte abenduaren 20rako. Ospakizunak, baina, oraingo asteburuan hasiko dira.

Abenduaren 20rako gertatu dutena aurreratzen hasi barik, bihar hasiko dira tabernaren eta elkartearen 25. urteurrena ospatzen. Hasteko, 12:30ean elkartuko dira triki-poteorako eta Arrano elkartearen egingo dute bazkaria. Ez da, baina, ohiko bazkaria izango, kantu-bazkaria egingo dute-eta. Txistulariak gonbidatu dituzte horretarako, abesti tradizionalak abesten laguntzeko.

Arratsaldean, berriz, kontzertu akustikoa egingo du Zarauzko Stockholm.s taldeak, 19:00etan.

25 URTE FERRERIAS KALEAN

Irati tabernaren eta Arrano elkartearen ganean berba egiteko Kepa Ormaetxearengana jo dugu. Zuzenean hartu zuen esku Kepak Herri Batasunaren egoitza lortzeko lanetan. Eta urte haien ganean kontatzeko moduko oroitzenak ditu, baita ehunka anekdota ere.

Eta hori izango da, hain zuzen, abenduaren 20rako prestatu duten ekitaldietako bat: "Urte haien ganean berba egiteko eskatu didate jaia antolatzen dabilzaneke, eta, egia esateko, badago

zer kontatu. Xabier Zubizarreta ere ibiliko da horretan, eta banatu egin beharko dugu gure kontakizuna". Alde horretatik, baldi horretan politikaz baino gehiago orduko garaiez egingo dutela berba esan digu Kepak: "1979ko hauteskundeetan ezker abertzaleak ez zuen non elkartu, eta hauteskunde haietan ESB alderdia eta KAS koordinadora batu egin ginen. ESBkoek Erguinen zuten lokalean egin genituen lehenengo batzarrak, eta gero, Centro Accion Catolicak Resusta kalean zuen lokalean prestatu genuen Herri Batasunaren kanpaina. Ardantza alkate aukeratu zuten hauteskunde haietan HBk lau zinegotzi eskuratu zituen, eta mugimendu hura bideratzeko lokal bila hasi ginen".

PUB BAT IZATEKO BIDEAN

Gutxiak jakingo dute Arrano elkarte eta Irati taberna dagoen tokian Beasaingo lagun batzuek pub bat jarri gura zutela: "Lokala erostekotan zeuden, eta guk dirua eskaini genien lokala guri saldu eta ordura arte egingo dako lana saritzeko. Hasieran onartu egin zuten, baina gero ikusi zuten diru gehiago ateratzeko aukera zeukatela. Orduan, lokalaren jabeak esan zien guk garbi jokatu genuela, eta gehiago ez aprobetxatzeko. Halaxe erosi genituen bi lokalak; izan ere, orain elkarte eta taberna dagoen lekua lehen bi jaberena zen".

Abenduaren 20an jarraituko du kontakizun horrek.



Abenduaren 20rako erretratu zaharren gaineko erakusketa dabilza prestatzen.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK




- Arotz lanak orokorrean

- Horma armairuak

- Altzariak

- Leihoak

- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**

Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)

- **INFORMATIBOAK**

Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 2**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 3**
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- DOMEKA, 4**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 5**
Azkoaga, Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- MARTITZENA, 6**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 7**
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUENA, 8**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 9**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiak medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINNTZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 meza nagusia
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (gaztelaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaraz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Domeka
12:30 (gaztelaraz) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaraz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Domeka
11:00 (elebiduna) |
| Domeka
12:00 (elebiduna) | San Isidro
Domeka
12:30 (gaztelaraz) |

OHARRAK

URIBARRIKOAK, DONOSTIARA
Uribarriko erretiratuen elkarteak Donostiara txangoa egingo du hilaren 21ean. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena. Hilaren 15ean zozketa egingo dute, 17:00etan.

LEKUKOAK BEHAR DIRA
Astelohenean, hilaren 28an, 10:00etatik 14:00etara bitartean, kamioi batek furgoneta bati talka egin zion Arimazubitik Olandixo arteko bidean. Horren gainean zerbaite dakenak, dei dezala honako telefono zenbakira: 652 76 59 82.

SAN NIKOLAS EGUNA
Martitzenean, hilaren 6an, San Nikolas eguna ospatuko dute. 12:00etan eta 12:30ean boloak egingo dituzte Herriko Plazan.

3.60 ARETOKO EMANALDIAK
Gaur, egubakoitza, Sioux, Akrata eta Falta de Riego taldeek kontzertua egingo dute, 23:00etan. Eta bihar, Arrasateko Shaggy Daddy & The Troublemakers eta Radio Wings taldeek.

AKORDEOI LEHIAKETAK
Bihartik (zapatua) martitzenera arte, Gipuzkoako eta nazioarteko akordeoi jotzaile onenak lehiatuko dira herrian.

AEDrenAGENDA

SEASKA ETA DEBAGUNE
Seaskak eta Debagunek argitaratutako egutegiak salgai daude AEDn. Debaguneko, urtero moduan, ibarreko argazki zaharrekin apainduta dago.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Emakumeen presentzia herriko elkarteetan

Herriko 14 elkartetako partaideak batu ziren emakumeek elkarteetan zenbaterainoko presentzia zuten aztertzeko: zenbat emakume ziren bazkide eta erabaki organoetan emakumeek zer partaidea zuten aztertu zuten. Eta zituzten susmoak bete egin ziren; alegia, parte-hartzea txikia zela.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


“Kakatsu”



JON IRAEGI

— Errelebua aldatu zotsenetik kakatsu bat eindda dago.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Unai Elorriaga idazleak ‘Vedraman’ liburua aurkeztu du errepidean, 107.7ko autobusean

Astean makina bat kilometro egin ditu uhinetako autobusak, eta hamaika bidaiari batu zaizkio egin duen ibilbidean. Unai Elorriaga idazlea martitzenean igo zen Vedraman bere azken liburua beso azpian zekarrela, eta hori aurkeztu zigon. Oñatirako bidean zihonan Elorriaga, literatura solasaldia egin behar zuelako han.

Eguaztenean, berriz, aste-roko txartela duen Irene lorazainak bonsai ederrekin apaindu zigon autobusa. Eta egue-

nean, *Numenak*, aita komikiarekin bete ziguten maletategia Julen Rivasek eta Unai Busturia marrazkilaria arrasatearrek. Saure argitaletxearen bitartez liburu hori argitaratu dute.

ASTEBURURAKO TXARTELAK

Astean autobusera igotzerik ez baduzue, asteburuko txartelak dituzue 10:00etan. *Igo Autobusera!* saioan izandakoaren laburpena eskaintzen dizuegu. Horrez gain, musika lagun gau eta egun.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 27	0 °C
MAXIMOA Astelohena, 28	9 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	139 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 23	8 °C 2 °C - l/m²
Eguena, 24	8 °C 4 °C 15,4 l/m²
Egubakoitza, 25	8 °C 7 °C 48,4 l/m²
Zapatua, 26	2 °C 1 °C 33,1 l/m²
Domeka, 27	5 °C 0 °C 15,9 l/m²
Astelohena, 28	9 °C 0 °C 12,8 l/m²
Martitzena, 29	8 °C 2 °C 13,8 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak




ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratua. Unai Elorriaga, idazlea; Julen Rivas eta Unai Busturia, *Numenak Aita* liburuz; Lorategia geltokian, bonsaiak berbagai...
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratua.
- ASTELEHENETIK EGUAZTENERA**
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarriketak.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Ibili munduan geltokia.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)
- EGUENETIK DOMEKARA**
10:00 Elkarriketa bilduma.

KALEINKESTA/ Zenbateraino afektetan dutzu neguko argi faltiek eta giro hotzak?



KONTXI VALDES
Langillie



MAIDER HERIZ
Langillie




JOXE OTADUI
Langillie



MARIAN ELORTZA
Langillie



ROBERTO ARIZALETA
Erretiraue



ROBERTO MORENO
Langillie

Egixe esateko, neuri ez dust askorik afektetan. Udaberririxte poztasun haundixe-kin hartzen dot, baiñe neguen ez naz triste ibiltten. Udan bero egin biher dau, eta neguen hotz.

Neuri giro hori gustetan jat, bero haundixe baiño gehixau; batez be etxien epel-epeletan egoteko. Udan horrenbeste egun bero egitten, aspertu egitten naz azkenerako.

Gureu dot oingo eguraldixe. Egixe da illune dala, baiñe udabarriko edo udako argittasune baloretako lelengo illuntasunetik pasau biher da; neuk ez dauket problemarik.

Neuri ez jat bape inporta, oso gustora ibiltten naz neguen. Pentsetan dot momentu bakotxien toke-tan dana egin biher daula, eta hauxe da oin euki biher doun eguraldixe.

Batzuetan egun ona eukitten dot, eta beste batzuetan ez horren ona, baiñe ez dot uste eguraldixek horretan eragiñik daukonik. Udan bero egin biher dau, eta neguen hotz.

Hori pertsonien araberrakue izengo da. Neuri negue asko gustetan jat, baiñe egixe da gehixau kostetan dala kalera urtetie edo mendire juetie. Egongo da neguek asko afektetan dutzon jentie.

USTEAKUSTE

80 hitz

RIPen DVDa kaleratu izanaren ondorioz, taldeko lagunak behin eta berriro azpimarratu dute orain dela 20 urte idatzitako hitz gehienek oraindik gaurkotasun handia dutela. Are gehiago, gaur egun hainbat alorretan askatasun eta batez ere adierazpen txikiagoa dagoela. Horren harira, adibide asko burura etortzen zaizkit, baina gertuko bat aukeratuko nuke: telebista, hain zuzen ere.

Gogoan daukat nik ere 80ko hamarkada. Gaztetxoak ginen eta orduko hainbat bizipen daukat, horietako batzuk telebistarekin lotuta. Izan ere, orduan ilusio handiagorekin ikusten genuen kaxa totoa. Saio xume bezain interesgarriak ematen zituzten eta horien artean nabarmenduko nituzke bi: Ingalaterratik ekarritako *The Young Ones* edo *Gazteak*, batetik; eta *La Bola de Cristal*, bestetik. Biak hala biak oso kritikoa zitiren. Hala ere, telebista publikoan ematen zituzten, edozeinek ikusteko moduko ordutegian.

BBCk ekoiztutako *Gazteak* saioan Thatcherri bonba bat bidaltzearen gainean berba egiten zuten, adibidez; eta TVEkoan kapitalismoaren kontra egiten zuten, esaterako. Gaur egun ez lituzkete halakoak emitituko.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BIGARREN ILARAN APARKATZEA Joan den egubakoitzean, Ferixalekutik Zarugaldera arteko errepidea moztuta egon zen ordu laurdenez. Herritar batek auto bat bigarren ilaran utzi zuen, eta horren ondorioz autobus bat pasa ezinik gelditu zen. Eta ez bakarrik autobusa, baita haren atzean zegoen auto ilara erraldoia ere. Udaltzainek ere joan ziren, baina gidaria bueltatu zen arte ez zuten konponbiderik aurkitu. Hainbat herritarrek, kaltetuek, argazkia egiteko eskatu ziguten. Horren bidez euren haserrea agertzeko.

ASTEKODATUA

260

OTARRE SALDU DITUZTE ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDE

Orain dela hiru aste aditzera eman genuen Zuberoako ikastolen aldeko otarreak salgai jarri zituztela. Arrasaten bizi den Rene Harbustani elkarrizketa egin genion. Eguaztanean aditzera eman zigun oso pozik daudela, dagoeneko 260 saldu zituztelako.

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Nire, Hire, gure

A palak gora altxatzen ziren liburuz beteta. Nire txikitasunean, begiz jotzen nituen eskura zeuden ipuin eta marrazkiz jositako liburutxoak. Artean goiko apaletako helduentzako liburuei erreparatu ere egin gabe, liburu denda hartan ezkututzen ziren istorio eta sekretuen arrastoari segitzen nion. Amak, liburukote mardulagoak hartzen zituen eskuartearen, eta orriak batera edo bestera aritzen zituen. Denda txikia zen bere horretan, eta apalarteko zirrikietan jendea pilatzen zen askotan, ia beti. Jendearen hanka artean, jendetzaren berriketa eta oihuetatik ihes egiten nuen hango istorioetara. Denboraren ibilian, liburuz pilatutako apaletara iritsi zen nire begirada. Eta askotan, denak ez ziren apaletan kabitzen, liburuzainen abileziarekin zirrikitu guztiak betetzea lortu arren. Eta liburuak hartu eta

gainbegiratu, eta berriro bere apaleko zirrikietan utzi, eta beste bat hartu. Batzuetan inguruak enredatuz, bestetan zer gura nuen garbi izanda edota etxekoentzako libururen baten bila.

Sarritan jo dugu askok txoko horretara, Mondragoeko

Hire izan da gutako askoren leku erreferentziala; bazkaritarako txartelak, kontzerturakoak, Korrikaren inguruak, trikiti-xa, bertsoalaritza... herri honen bizitzari jarraitu diozue, herri hau bizirik jartzen lagundu

“Herri hau bizirik jartzen lagundu duzue. Gure herriak azken liburu denda honen agurrarekin zer galtzen duen baleki...”

duzue. Gure herriak azken liburu denda honen agurrarekin zer galtzen duen baleki... Lagun batek dio, gogorra egingo zaiola saltoki handi horietan, tomateak, xaboia eta liburuak karro berean nahastuta ikustea. Umezurtzago sentitzen naiz, edo analfabeto-ago, gure eskualde ultramoderno honen abiaduran letra apur bat falta denaren susmoan... erreleboak badu nondik ikasi, eskerririk asko.

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amalia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa
ARGAZKIAK
Mikel Lupiañez

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Joan den irailean atera zuen Herensugeak taldeak erretratua, Parrokiako hormaren kontra.

ERRUGBIA/ Talde beteranoak 10 urte bete ditu aurten, eta ospakizunetan dira

Herensugeak errugbi talde beteranoa Uruguaira bidean da

XABIER URTZELAI

Arrasateko Errugbi Taldeko beteranoak, Herensugeak, Uruguaira bidean dira eta bihar, zapatua, iritsiko dira Montevideoa. Egia esateko, ez dago taldearen hamargarren urteurrena ospatzeko modu hoberik.

Datozen egunotako zubiak aprobetxatuta, Arrasateko 26 lagun joan dira Uruguaira, astebete igarotzera. Talde horretatik 18 jokalariek dira, bi lagun ibiliko dira taldea zuzentzeko lanetan eta gaintzeko seiak Herensugeak taldeko jarraitzaile sutsuenak dira: sei emazte, hain zuzen. Hego Amerikan egingo duten astean ez dira

turismoa egitera mugatuko, lagunarteko bi norgehiagoka jokatuko asmoz joan dira-eta. Kontua da taldeko kide Ramon Barrantiak harreman estua duela Uruguaira Errugbi Federazioko presidentearekin, eta bien artean prestatu dute bidaia.

Hala, Herensugeak taldeak eguaztenean izango du lehenengo norgehiagoka Montevideoko talde sendo baten kontra. Eta egubakoitzean jokatuko dute bigarren norgehiagoka. Bitartean, Arrasateko espedizioak Punta del Este eta Colonia hiriak ezaugutuko ditu.

Hala, bidaia hori izango da Herensugeak taldeak 10. urteurrena ospatzeko egingo duen eki-

men garrantzitsuena, nahiz eta ez den bakarra izan. Gainera, komeni da argitzea bidaia hori nork bere poltsikotik ordaindu duela. Izan ere, urtean zehar dirua ateratzeko egiten dituzten ekimen guztiak seniorrei eta maila txikiak taldeei laguntzeko izaten dira.

SENIORREK SANTOÑAREN BISITA

Bihar, 16:00etan, Arrasateko talde nagusiak Santoña hartuko du Garagartzan. Ikusteko dago, baina, zelan egongo den errugbi zelaia. Lanak egiten dabilta hantxe, eta aste barruan lokatza baino ez zegoen. Kirol arloari dago-kionez, garaipen beharrean daude arrasatearrak.

LABUR

Bihar Mugarri Alkesak kontrario gogorra izango du: Auto Escuela Alava, Gasteizen

Arrasateko taldeak baino bi partidu gutxiago irabazi ditu talde gasteiztarrek, baina indartsu hasi zuten Liga. Iturripen, arrasatearrek justu-justu irabazi zuten, azken segundoan egindako saskiratze bati esker. Eta errebantxa gogoarekin egongo dira arabarrak. Kontuan hartu behar da, gainera, lehenengo lau taldeak igotera faserako sailkatuko direla, eta fase horretan, aurretik jokatutako partiduak kontuan hartuko dituztela. Horrek esan gura du sailkatzearekin ez dela nahiko. Gero zailtasun txikiagoak izateko, orain lortuko dituzten emaitza guztiak izango dute garrantzia. Alde horretatik, Padura izan da orain arte min handien egin duen taldea.

Zortzi taldek hasiko dute oraingo asteburuan Zaldibarko Kopa Txapelketa

Liga alde batera utzi, eta Kopa Txapelketako lehenengo kanporaketak jokatuko dituzte oraingo asteburuan. Txapelketa hori final-zortzirenetan hasteko 16 talde behar dira, baina 20 talde daudenez, zortzi talderen artean lehenengo kanporaketak jokatuko dituzte. Eta zozketa egin eta gero, ondorengo taldeek jokatuko dute bihar, zapatua: Iluntzek eta AT Celayak jokatuko dute lehenengo partidua (11:15), eta ondoren Aurrera Bolie eta AC Surkos lehiatuko dira (13:00). Arratsaldean, berriz, Lasagabaster eta Iriztu izango dira aurrez aurre (15:50), eta Tomahawk eta HLB 108 taldeen arteko partiduarekin amaituko da oraingo asteburuko jardunaldia (17:00). Domekan ez da partidurik izango.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Berio

Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.

Mondra - Aurrera Ondarroa

Ohorezko gazteak. Domekan. 11:30. Atxabalpen.

Mondra - Arizmendi Aretxabaleta

Emakumezkoak. Domekan. 15:30. Atxabalpen.

Bergara - Arrasate

Alebinak. Domekan. 10:00. Aretxabaletan.

ERRUGBIA

Arrasate RT - Santoña

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

SASKIBALOIA

Auto Escuela Alava - Mugarri Alkesa

Lehen Maila. Zapatuan. 17:30. Gasteizen.

La Salle - Mugarri Alkesa Arrasate

Junior. Zapatuan. 12:15. Donostian.

Goierri - Mugarri Alkesa Arrasate

Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Urretxun.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasate - Bergara

Lehen Territ. Domekan. 11:45. Iturripen.

Gatz Museoa Jakion - Arrate

Kadet. Mutilak. Domekan. 10:00. Iturripen.

Arrasate - Urola

Gazteak. Nesk. Zapatuan. 16:00. Iturripen.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

MUSIKA/ Arrasateko Akordeoi Lehiaketak

Jatorri askotariko ehunka akordeoi jotzaile lehiatuko dira bihartik aurrera

IKER BARANDIARAN

Bihartik, zapatua, martitzenera arte ehunka akordeoi jotzaile lehiatuko dira Arrasaten. Nazioarteko punta-puntako musikariak, Gipuzkoako promes gazteak eta beste ibiliko dira kontzertuak ematen Amaia Udal Antzokian eta Arizmendi Ikastolan.

Aurtengoa hamazortzigarren aldia da Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak Gipuzkoako Akordeoi Txapelketa antolatzen duena. Eta hamahirugarren aldia da Nazioarteko Lehiaketa ere egiten dutena.

Bi lehiaketa horiez gain, akordeoiarekin lotutako beste hainbat ekitaldi egiten dituzte. Badira 10 urte baino gehiago Hauspoz elkarteak Arrasate duela lehiaketa guzti horien kokaleku, eta Udalaren, herriaren eta Hauspozen arteko lankidetzak ona denez, urtez urte errepikatzen dute.

Bihar, zapatua, hasiko dituzte ekitaldiak eta martitzenera

arte, hilaren 6a, iraungo dute. Gipuzkoako 26. Lehiaketa, Nazioarteko XIII. Lehiaketa eta Gipuzkoako XVIII. Jaialdia, III. Akordeoi Orkestra Lehiaketa eta Gipuzkoako XVIII. Jaialdia Amaia Udal Antzokian eta Arizmendi Ikastolan egingo dituzte.

LEHIAKETAZ KANPOKO EMANALDIK

Bestalde, astelehenean, hilaren 5ean, iaz Nazioarteko Lehiaketan bigarren postua eskuratu zuen Esloveniako Primoz Parovel akordeoi jotzaileak kontzertua egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan. 20:00etan izango da, eta Taiwango Hsin-Ying Chen sopranoa izango du alboan.

Hala, Nazioarteko Lehiaketan 21 lagunek esku hartuko dute, eta jatorri askotarikoak dira: Euskal Herria, Finlandia, Frantzia, Bielorrusia, Alemania, Ukraina, Serbiá, Txina, Errusia eta Italia. Epaimahaia ere jatorri askotariko adituek osatzen dute: Eskozia, Finlandia, Euskal Herria, Alemania eta Yugoslaviakoak, hain zuzen ere.

*Nazioarteko XIII.
Lehiaketan bi
euskaldunek
esku hartuko
dute aurten*

*Astelehenean,
Esloveniako Primoz
Parovel akordeoi
jotzailea parrokan,
20:00etan*

Nazioarteko Lehiaketako sariak honako hauek dira: 3.600 euro eta bira bat 2006an; 1.800 euro; eta 700 euro, hurrenez hurren. Horrez gain, Kutzak Ikusleen saria emango du, baina ez dute aurreratu zer izango den.




ASTELEHENEKO GOJENKARIA

Besteak beste, akordeoiaren promes gazteek esku hartuko dute.

Gipuzkoako XVIII. Jaialdian, berriz, 10 eta 15 urte bitarteko 250 gaztek esku hartuko dute. Jaialdi horretako esku-hartzaile guztiek saria jasoko dute. Gipuzkoako 26. Lehiaketan, berriz, 25

lagun lehiatuko dira. Aditzera eman dute senior mailako irabazleak Miramongo Matine kontzertuetan esku hartzeko aukera izango duela 2006an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoari esker.



AEDk eta Udalak, hitzarmena sinatu

Martitzenean, AEDk eta Udalak lankidetzak hitzarmena sinatu zuten. Ekitaldian parte hartu zuten AEDko lehen-dakari Joseba Ezpeletak eta idazkari Nagore Zubizarretak eta Udaleko Euskara eta Kultura zinegotzi Inés Aldaik, Euskara teknikari Jose Felix Diaz de Tuestak eta alkate Inazio Lakuntzak.

1989an egin zuten AEDk eta Udalak hitzarmen hori (aitzindaria izan zen Euskal Herrian), eta 2004ra arte urtero berritu dute. Iaz desadostasunak izan zituzten eta ez zuten berritu. Hala, aurten berriro heldu diote. //I.B.

LABUR

'Baserria' zarzuelarako sarrerak salgai daude dagoeneko Amaia Udal Antzokian

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak hilaren 10ean, 11n, 16an eta 17an *Baserria* zarzuela eskainiko du Amaia Udal Antzokian. Lehenengo hiru egunetan, 19:30ean; eta laugarrenean, 19:00etan. Guridiren *El Caserío* lan ezaguna lehenengo aldiz euskaraz egingo dute osoz. Sarrerak 15 eurotan saltzen dituzte, antzokiko leihatilan. Gaur, egubakoitza, eta hilaren 5etik 17ra (biak barne) egunero salduko dituzte, 18:00etatik 20:30era bitartean, antzokiko leihatilan.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak salgai daude AEDko egoitzan

Abenduaren 18an Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala jokatu dute. Txapelketak jakin-min handia piztu du. Arrasaten bertan, AEDko egoitzan (Pablo Uranga) sarrerak erosteko aukera dago. 25 eurotan saltzen dituzte. Horrez gain, Bertsozale elkarteak bazkaria eta autobusa kontratatzeko aukera ere eskaini du. Bazkaria, 18 eurotan; eta autobusa, 12 eurotan. Horiek ere AEDn eskura daitezke.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

BOTEPRONTUEN

Joseba Gartzia

BERANGO DEKORAZIOA, SUKALDEAK

XABIER URTZELAI

Badie hillebete batzuk Berango Sukaldeak Gipuzkoa etorbidien dauela, lelengo zenbakixen. Josebakin egon gare sukaldien gaiñien berbetan, eta baitte Logos etxien gaiñien be. Lehen, sukaldiek egitten euen, baiñe oin montautekuek saltzen daue.

Hasteko, zein da Berangokue?
Geure aitte da Berangokue, eta neu be han jaixo nitzen, baiñe urtebete neukela etorri gitzen Mondraguera.

Oin Kabia etxiekien egitten doze publizidadie.

Bai, baiñe hori publizidadeko orrixe beteteko formula bat da. Lagunek gare, baiñe ez daukou bestelako harremanik.

Sukaldie ipiñi gure dauenak, baiñe ezer gutxi preparentan daki-xenak, merezi dau dirue gaste-tie?

Hori norberak ikusi biher dau, neuk pentsetan dot merezi dauela. Azken baten, kotxe baten gehixau pagetan dounien badakigu zergaittik pagetan doun gehixau, eta hamen be igerrri egitten da. Diseiñue, materixala... Horreik pagau egin biher die, eta merezi dau.

Eta 35 metro koadroko etxien, zelan ipiñi sukaldie?


Hamen erakusteko daukoun sukaldiek modukuek ez, behintzet. Baiñe neurrireko sukaldiek be egitten dou.

Diseño elegantekuek dauke-tzue; penie emuten dau zarta-kiñie ataratie.

Neuk pentsetan dot kontrakue dala. Sukaldie da gustora egoteko leku bat, gure dana preparentako aukerie emungo dauena. Materixalak onak badie, ez dau zartakiñie atarateko problemarik.

Beste etxe batzuek mueblik saldu bai, baiñe norberak montau biher dau sukaldie.

Pertsonie abille bada horretan, ez dau problemarik. Oin, brikolaje kontuetan eskue euki biher da. Badau esaldi bat esaten dauena: *Hobe da sukalde txarra euki baiñe ondo montaute, sukalde ona txar-*



X.U.

“Esposiziñuen daukou Rubens Barrichello gidarixek Algarveko etxien daukon sukaldie”

to montaute eukittie baiño. Argi dauena da, baiñe, horrei sukalde horrei ezin jakola aparteko kalidaderik eskatu.

Jentiek zelako sukaldiek eskaketan dau?

Oso kuriosue da, baiñe gaztie die lehengo muebledun sukaldiek gure dauenak. Alde horretatik, ez die bape atrebideuk.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienai?

Danok esaten dou iguela, baiñe hala da: aste bukaeretan jentie hamen geraketako gauzak eukittie.

Eta ze dauko ona?

Inguruek, mendixek.
Ze falta jatzu zeuri?
Geure umiekin egoteko den-

“Hobe da sukalde txarra euki baiñe ondo montaute, sukalde ona txarto montaute baiño”

pora luziaue.

Ze dauketzu sobran?

Ez dakit ze esan; gauza asko, seguruenik.

Ze da zeuon laneko gauza onena?

Beti pentsau izen dou saltzailie engañau guran ibiltten dala, hau edo bestie saldu guran. Eta guztiz kontrakue da; ez dau klientie gustora ikustie modukorik.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Alguien voló sobre el nido del cuco / Johnny cogió su fusil / Mark Knopfler, adibidez.

Buketakato, kapritxo bat?

Edurretara juetie. Aspaldi ez gare juen, eta politte izengo litzake.

NIREBIDAIAHURA/ Nerea Arrese

Venezuelara / 2005eko udan.

Venezuelara iritsi eta Nereak, Xabik eta Ekainek lehenengo egunetan egindako bidaiaren gainean egin genuen berba joan den astean. Goazen, baina, harira, Caracasko eskoletan bizi izandako esperientzia kontatzera. Aurrekoan esandako moduan, Boheri gobernuz kanpoko erakundearen bitartez joan ziren hara: “Catia izeneko auzoan izan ginen. Goizetan joaten ginen eskoletara, eta arratsaldeetan tailerretara. Besteak beste, eskoletako egitura horizontala deigarria iruditu zitzaigun, ez zegoen goitik behera mailakatuta eta parte-hartzea bultzatzen zuten. Horri esker hango bizilagunekin hartueman zuzena izan genuen, eta hori izan zen aberasgarriena: zelan antolatzen diren, gauza askoren gainean ze iritzi duten, zelan bizi diren...”




“Hango kooperatibak gizartean eragile sozialak dira”

Hango kooperatibek duten garrantziaz ere jabetu ziren: “Hemengo kooperatibismoak izaera galdu du, jendea ez da identifikatuta sentitzen. Lan-tegira joaten gara, zortzi ordu lan egitera, eta hurrengo egunera arte. Han, berriz, kooperatibak gizarte eragile aktiboak dira, gizarte mugimendua antolatzeko modua dira. Hala, kooperatibismoa ez da arlo ekonomikora mugatzen, arlo soziala eta beste hainbat arlo batzen ditu. Izan ere, kooperatibako kide izateak eragin handia du hango bizimoduan”.

Eta beste arlo batzuen artean, politika ere barnean dago: “Hemen, kooperatiba mugimendua ahalegindu da politikan ez sartzen. Han, berriz, kooperatibek badute eragina politikan ere”. Eta politika berbagai hartuta, derrigorrezkoa da Chavezek gainean galdetzea, orain ere albiste da-eta Venezuelako presidentea. Alde horretatik, Nereak, Xabik eta Ekainek hango bizilagunek kontatutakoa eta han ikusi izandakoa kontatu digute. Chavezek hango bizilagunengan duen eragina, dituen kontrario sutsuak, zelako politika egiten duen... Hori, baina, datorren astean.

XABIER URTZELAI



Caracasko auzo bateko erretratua, gauez.

Expres kafetegia

- Plater konbinatuak
- Otartekoak
- Olagarroa galiziar erara

Tel: 657.793.707
Maalako Errabala 8, behea

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

945 711768



Opel ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izen" garenak kalifikazio pertsona nagusien babesan

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

GMAC FINANCIAL SERVICES

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

ELKARRIZKETA

UNAI BUSTURIA ETA JULEN RIBAS//NUMENAK AITA' LIBURUAREN EGILEAK

“Mitologiarekin lotutako trilogia egin gura dugu liburu hau oinarri hartuta”

IKER BARANDIARAN

Unai Busturia eta Julen Ribas arrasatearrek *Numenak Aita* izeneko komiki liburua argitaratu dute. Dagoeneko eskuragarri dago liburu dendetan: Euskal Herrian, euskarazko edizioa; eta Espainian, gaztelarazkoa.

Noiz eta zelan bururatu zitzaizuen liburu hori egitea?

Bartzelonan ikasten genbiltzala, elkarrekin zerbaitegitea erabaki genuen. Orain dela 2 urte, berriz, argumentua prestatu eta Durangoko Azokan hainbat argitaletxetara jo genuen, horien artean Legutianoko Saurera. Interesgarria iruditu zitzaie, eta ideia garatzeko eskatu ziguten.

Denbora luzea eman dizue liburu hori egiteak?

Bai. Oso poliki joan da: arkatzarekin zirriborroak egitea, kolorea ematea...

Zelanbaiteko finantzaketa lortu duzue...

Bai; ezinezkoa delako lanari eman dizkiogun ordu guztiak ordaintzea. Argitaletxeak diru kopuru bat jarri du, eta Udalak eta Jaurlaritzak ere lagundu dute, batez ere Arrasateko Udalak. Horren harira, eskerrak eman gura dizkiogu Kultura teknikari Jon Garairi, inplikatu egin delako eta ezinbesteko laguntza eman digulako.

Elkarlanean egiten duzuen lehenengo lana da?

Bai; behin, biok elkarrekin lehiaketa batera aurkeztu ginen, baina ez genuen saririk eskuratu. (Barreak) Bartzelonan komikia, animazioa eta halakoak ikasi genituen: Arte Grafikoa.

Liburu horrez gain, baduzue esku artean ikasketa horiekin lotutako beste lanik?

(Julen) Aspaldi honetan Frantziako argitaletxe baterako hainbat lan egiten nabil, eta hainbat lehiaketatan esku hartu dut.

(Unai) Almenen eskolak ematen nabil. Horrez gain, tarteka bestelako lanak ere egiten ditut.

Liburura bueltatuz, zer dira **Numenak**?

Euskal mitologiako espiritu magikoak: Akerbeltz, Anbotoko Mari, Tartalo... Numena latinezko izena da, baina euskaraz ez dago beste izen aproposik. Hala ere, konturatu gara oso jende gutxi dakiela hitz horrek zer esanahi duen.

Zergatik aukeratu zenuten mitologiaren gaineko lan bat egitea?

Euskal mitologia gai interesgarria eta hurbila delako. Ez dago horren gaineko ezagutza handirik. Hala ere, harritzekoa da gu hasi ginenean ez zegoela ia horren gaineko lanik, eta azken bi urtetan hainbat lan kaleratu dituztela. Hala ere, gurea komikian egin dago eta neurri baten didaktikoa ere bada.

Liburua kondaira batzuetan oinarrituta dago...

Bai, kondaira batzuk gaur egungo istorio batekin lotu ditugu. Diego Lopez de Haroren kondaira batu dugu, Marirekin ezkondu zela dioena. Horrez gain, gaur egungo Arrasaten bizi den neska batek laguna galduko du, eta horren bila joko du iraganera, hain zuzen ere.

Gaur egungo istorioa Arrasaten kokatuta dago...

Bai. Oso ohikoa da komikiak hiriburuetan kokatzea (New Yorken, Bartzelonan...), eta guk erabaki genuen Arrasate sartzea. Zergatik ez? Herriko leku kuttun batzuk sartu ditugu: Monterron ondoko txoko bat, Gelmako tailerra, baserriren bat...

Liburuari jarraipena emateko asmoa daukazue?

Bai; berez trilogia bat egin gura genuke. *Aitaren, alabaren eta Mariren izenean...* *Numen. Aita, Ama eta Mari*, hain zuzen ere. Hala ere, ikusi beharko dugu liburu horrek zer harrera duen eta ea argitaletxeak horren aldeko apustua egiten duen.



“Numenak euskal mitologiako espiritu magikoak dira: Akerbeltz, Anbotoko Mari, Tartalo...”

“Komikiak hiriburuetan kokatzen dituzte, eta guk Arrasate aukeratu dugu”

LABUR

Radio Wingsen azkeneko emanaldia, grabatu aurretik

Bihar, zapatua, Arrasateko Radio Wings eta Shaggy Daddy & The Troublemakers taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan.

Zaila da Radio Wings taldea zuzenean ikustea, ez dute eta kontzertu askorik ematen. Chicos Boom izenpean hainbat emanaldi egin zituzten, baina aspaldian -izena aldatu zutenetik- ez dute askorik jo. Hala ere, esan digute orain dela aste pare bat Burgos aldean bi kontzertu egin zituztela.

Horren harira, talde horren zaleek argi ibili beharko dute, biharko kontzertuaren ostean atsedendia hartuko dute-eta. Abenduaren 26an Eibarko grabazio estudio baten sartuko dira; izan ere, sei kantu grabatu gura dituzte eta horiekin lan bat kaleratu. Hortaz, denboralditxo baten ez dira eszenatokietara itzuliko.

Radio Wings taldeko kideek 20 eta 22 urte bitartean dituzte, baina kontzertu itzelak ematen dituzte. 60ko eta 70eko hamarkadetako rocka errebinkatzen dute.

Gazte Asteburuak ekimenaren azken ekitaldiak egitear

Arrasateko Gazteen Kontseiluak antolatutako Gazte Asteburuak ekimena bukatzeaz dago. Atzo, eguna, Sexmetraia lehiaketako film laburrak eman zituzten gaztetxean. Udal Sexologia Zerbitzua ere egin zuten elkarlanean.

Horren aurretik, umeen eguna antolatu zuten, Txatxilipurdi elkartearen laguntzarekin; eta gaztainak jateko eta trikitiarekin eta kale animazioko taldeekin dantza egiteko aukera izan zuten hainbat herritarrek.

Hilabete oparo hau bukatzeko, abenduaren 17an kontzertua egingo dute gaztetxean, herriko zenbait talderekin.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazioa guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde emateko duzun da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzun Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alda emateko duzun dira.
* Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora / * Vodafone: deitu 123-ra / * Movistar: deitu 095-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaizue abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dazuten irudi badiuzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) + KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Kariadako bantoi) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Femin Mugazko) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Elos dion miera, nosotroz amén (La Polka) | ELLOS
Enamorado de la muerte (Jep) | ENAMO
Etorikizuna (Etsiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken) | EZER

Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Erzean) | BELAIR
Haizea (Ken) | HAIZEA
Hegal egiten (Itzi) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inperuen ate joka (Gaibai) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Erzean) | JOKIN
Kaixo (Uriz) | KAIXO
Lau Teilatuta (Itzi) | ITOIZLAU
Laztana (Lazten) | LAZTA
Lotuta egon arren (Ikaitin) | LOTUTA
Loretxoa (Etxepare) | LORE
Marea Gora (Itzi) | MAREA
Musturrek sartunde (Gaibai) | MUSTURREK
Nigaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polka) | SALVE
Sarrri Sarrri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Etsiak) | SORGIN
Bokespok (Kape Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapiu) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epele eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Aizko/Maiden) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kape Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aizko/Maiden) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bala) | SOROTAN

Bai euskarari (Pantxo) | BAI
Bakezaleak (Ane Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Ane Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herria Euskaraz (Ikaitin) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Ikaitin) | EUSKALDUN
Ez da posible (Piper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Ikaitin) | FURRA
Galizara noa (Ikaitin) | GALIZARA
Gernikako Arbola (Gortzel Mendizal) | GERNIKAI
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarraren hautsa (Xabier Lata) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxo/Paio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bala) | MARINE
Nere herriko neska baten maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
O! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | O!AMA

Tiraiki (Ikaitin) | TIRA
Txatxilipurdi (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Piper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaita (Kape Junkera) | JAJA
San Fermín | FERMÍN
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

Soinu izena + KODEA
1,2,3,4...Real!! | REAL
Athletic luep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitaren ta semea... | AITAREN
Hartu... Ansar | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miami!! | MIAMOL
Independentzial | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txoxtx | TXOTX

LOGOAK (sms 1)

LAU1
LAU3
NUKLEAR
LORA
SORGIN
ARRANO

EZETZASMATU



MIKEL LUPIAÑEZ

Zer dabilta eraikitzen ikusten duzuen argazki horretan?
Arrastoa: dagoeneko dezente aurreratuta dute lan hori.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Casa Alicia Esparragoak
6/9 540 g-ko potea

1,89 € 314 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FELIX AIASTUIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Felix!
Galderen erantzun zuzena:
Arrasate kooperatibak Libian eraiki zuen lantegia.

ERRETRATUZAHARRA

Enpresek bultzatutako etxebizitzak

Union Cerrajerak langileendako etxebizitza ugari eraiki izan ditu bere historian. Gerra aurretik egindakoez gainera, 40ko eta 50eko hamarkadetan beste asko eraiki zituen. Bi hamarkada haietan enpresa horrek finantzatutako etxebizitza gehienak Zigorrola auzoan egin zituzten.

1943an enpresak 20 etxebizitza egokitu zituen Roneok iraganean biltegi eta inprimategi moduan erabilitako eraikin zaharreen. 1944an beste 16 etxebizitza eraiki zituzten aurrekoen ondoan, haiek berriberriak, gaur egungo Gipuzkoa etorbidean.

Hain justu ere, oraingo asteko argazki zaharreen ikusten dira Gipuzkoa etorbideko etxe berri horien 16 jabeak, etxeetako giltzak eskuratu ostean. Jose Luis Iñarra parrokoak lagunduta, Union Cerrajerako ordezkari Camilo Basterretxeak eman zizkien giltzak jabeei. Honako hauek dira: 1-Faustino Sarazibar; 2-Zipriano Beitia; 3-Narciso Sasiain; 4-Vicente



Castillo; 5-Ramon Alvarez; 6-Gregorio Idigoras; 7-Jose Vitoria; 8-Enrike Lazkano; 9-Jose Maria Lopez; 10-Balbino Larrañaga; 11- Gonzalez Txapas; 12- Jose Maria Etxebarria; 13- Jose Sudupe; 14- Manuel Uranga; 15- Valentin Sagasta eta 16- Alejandro Rodriguez.

Baina Union Cerrajera ez zen etxebizitzak eraiki zituen bakarra. Obra Sindical del Hogar izenekoak 197 etxebizitzaren eraikuntza bultzatu zuen 1952an. Etxebizitza haiek Sola jauregiaren orube zaharreen eraiki zituzten, San Juan etxadian, hain zuzen ere.

Halako ekimenei esker arindu zen sasoi hartan geroago eta larriagoa zen arazo bat: etxebizitzaren urritasuna.

Argazkia: Arrasate, langileek eraikitako herria.
Informazioa: Narciso Sasiain, Simon Arregi eta Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.
Urtea: 1947ko martxoaren 10a.

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a

404. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Kontzertuak eta umeendako ekitaldiak ditu Negu Kulturalak

MIRARI ALTUBE

Datozen egunotan banatuko dute etxe guztietan Negu Kulturala egitaraua. Kultura Sailak gertatu du, eta kontzertuz beteta dator egitaraua. Urtero legez, umeak izango dira protagonista; Poxpolin Park-ik ez dute izango aurten, baina izango dute zerekin jolas egin.

Abenduarekin batera kaleratzen du Kultura Sailak hurrengo bi hilabeteotako ekintzen egitaraua. Hala ere, atzo, abenduak 1, hasi eta urtarri bukatu bitartean izango dute herritarrek zer entzun eta zer ikusi.

ORGANOA, AKORDEOIA ETA ABESBATZA

Kontzertuak dira nagusi egitarauan, era guztietako kontzertuak, eta hasteko Primoz Parovel Esloveniako akordeoilariaren ekitaldia izango dugu bihar, zapatua, 20:30ean, parrokiari. Arrasate Hiriko Akordeoi Txapelketako irabazle izandakoari Hsin-Ying Chen sopranoak egingo dio lagun.

Abenduaren 15ean eta 21ean, musika entzunaldiak eskainiko dituzte Leizarra musika eskolan, 18:30ean. Abenduaren 16an, ostera, kontzertu bi egongo dira: organo kontzertua Mari Karmen Azpeitaren eskutik, 19:00etan, parrokiari eta Kokein taldearena, 22:30ean, Ezkutu tabernan. Abenduaren 17an Aretxabaleko Akordeoi Orkestrak eskainiko du kontzertua 20:30ean, parrokiari; eta hilaren 30ean, egubakoitza Jose Luis Franzesena organo jolea eta Aretxabaleta Abesbatza izango dira parrokiari, 19:00etan.



Ipuin kontalariak, tailerrak eta jolasak izango dituzte umeek Gabonetako egunetan.

POXPOLIN TAILERRAK, DEBALDE

Gabon egunetan umeak izan ohi dira protagonista, eta aurten, Poxpolin Park beharrean Poxpolin tailerrak izango dituzte. "Kirol etxean antolatzen genuen tailerrak diru kostu handia zeukan eta kexa asko jasotzen genituen", dio Inma Miguelek, Kultura teknikariak: "Egoera hobean eta debalde eskainiko ditugu aurtengo ekitaldiak Iralabarri plazan".

Abenduaren 23an, kriseilu edo faroltxoak egingo dituzte 15:00etatik 18:00etara bitartean kultur etxean, hurrengo egunean Olenzerori ongietorria egiteko. Abenduaren 24 goizean, ume zein gurasoek Gabon kantak abestuko dituzte kalean, eta arratsaldean,

18:30ean, Olenzeroren bisita jaso dugu Leizarra musika eskolako txistularien laguntzarekin.

Hilaren 27an, Poxpolin tailerrak egingo dituzte goiz eta arratsaldean 3 eta 12 urte bitartekoendako; 28an, ipuin kontalari bi egongo dira, 16:00etan; eta 29an, Poxpolin jolasak izango dituzte kirol etxean: ur jolasak 8 urtetik gorakoendako eta gaztelu puzgarriak ume guztiendako.

Abenduaren 31n Bizar Zurik egingo digu bisita, eta urtarrilaren 5ean ekialdetik datozen Errege Magoek. Negu Kulturalari agur esateko, ostera, Pirritx eta Porrotx izango ditugu urtarrilaren 28an, zapatua. *Maite zaitut* ikuskizuna eskainiko dute bi pailazoek.

Atzo ezkerro itxita dago Urkulu automobilendako

M.A.

Urkulu inguratzen duen ibilbidea ixtea erabaki zuen duela hilabete batzuk Udalak, eta atzo ezkerro itxita dago. Aparkalekuan utzi beharko dituzte autoak erabiltzaileek; bestela, udaltzainek isunak jarriko dizkiete. Gainera, Bainuetxeko industrialdeko aparkalekua erabiltzeko dei egin du Udalak.


Atzo itxi zuten Urkulu urtegi inguruko ibilbidea Goroeta parean. Zutoinak jarri dituzte, eta giltza daukatenek bakarrik kendu ahal izango dituzte. Hala, ibilgailuen joan-etorria arautu eta Urkuluko ingurunearen erabilera behar bezala antolatu gura du Udalak.

Erabiltzaileek aparkalekuan bakarrik utzi ahal izango dituzte


automobilak, eta udaltzainek isunak jarriko dizkiete araututako guneetatik kanpo daudenei.

BAINUETXEKO APARKALEKUA

Bainuetxeko industrialdeko aparkalekua sustatu gura du Udalak eta Urkulu urtegiaren daudenak, berriz, adinekoendako, umendako eta ezinduendako gorde. Seinale bidez emango diete herritarrei horren berri. Helburua da ibilgailuen joan-etorria murriztea eta oinezkoen lehentasuna ematea; gainera, ekosistema babestu egingo dute. Era berean, Urkuluko edertasunarekin gozatzera joaten direnei gogorazten diete naturari eta baserritarrei esker paraje bikaina daukagula Kurtzebarriren magalean, eta luzaroan edukitzeko errespetuz eta begirunez jokatzea ezinbestekoa dela.



Atzo (abenduak 1) ezkerro daude jarrita Goroetako bidegurutzeko zutoinak.



ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 3
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 4
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

- Almen 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA 943 79 86 21
- Fara 943 77 18 54
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kirol etxea 943 71 26 28
- Kultura etxea 943 71 10 27
- Gazteria salla 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
- KZGunea 934 79 94 44
- Liburutegia 943 71 18 62
- Loramendi EE 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murukiro ME 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Osasun etxea 943 71 19 59
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
- Taxi geltokia 943 77 12 64
- Udal Bulegoak 943 71 18 62
- Udaltzaingoa 943 71 18 63
- Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Anrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

- SOS Delak 112
- Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaizta 943 79 71 99
- Gurutzte Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Loramendi EE eta AGE batera euskararen alde

M.A.

Bihar, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Ikastetxeetan landuko dute bereziki, baina Loramendi Euskara Elkartek ere ospatu gura du. Hala, Gazte Ekimenarekin batera hainbat ekitaldi antolatu ditu. Goizean umeak izango dira protagonista eta arratsaldean, herritar guztiak.

Loramendi EEk maiatzean ospatzen du Euskararen Eguna; hortaz, ez du ekitaldi handirik egingo oraingoan. Hala ere, euskarak izango du aipamenik bihar, abenduak 3.

MARRAZKIAK ETA GAZTAINAK

Ume eta gaztetxoek jai giroa izango dute bihar goizean. 11:30ean,

aurpegia margotzeko eta marrazkiak eta margo jolasak egiteko tailerrak jarriko dituzte Herriko Plazan. Ezustekoren bat ere izango dute plazara hurreratzen direnek. Eguraldi txarra eginez gero filma jarriko diete txikienei udalaxe zaharrear.

Arratsaldean, 18:00etan, gaztaina erreak eta sagardoa eskainiko dizkiete herritarrei Gazte Ekimeneko kideek. Eguraldi ona eginez gero Mitarte kalean egongo dira, eta bestela, Herriko Plazako arkupeetan.


SARREREN ZOZKETA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusiko finalerako lau sarrera zozketatu ditu Loramendi EEk bazkideen artean. Mari-lu Madinabeitiak eta Ana Agirrek bina sarrera jaso dituzte.



ARTXIBOA

Aurpegia margotu eta marrazkiak egingo dituzte umeek, euskara gai hartuta.



Giza balioak landu dituzte astean

Giza balioak landu dituzte astean Kurtzebarri eskolan. Beste herrialde batzuetan zela bizi diren ezagutu dute, Saharan, Mexikon edo Mozambiken. Baina ezin ahaztu Euskal Herria, eta horretarako Neguko Jaia egin zuten atzo, abenduak 1. Urtero legez, irrintzi lehiaketa eginez hasi zuten, laugarren aldia dagoeneko, eta ostean Larrain dantza erakustaldia eskaini zieten hurreratuakoei ikasle, irakasle eta gurasoek. Buzkantzak eta gaztainak jan bitartean giro ezin hobea jarri zuten trikitilariak. / M.A.

LABUR

Santa Luzia ospatuko dute Basotxon eta omenaldia egingo diete 90 urteko bazkideei

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna ospatuko du Basotxo Erretiratu Elkarteak, Gainera, aurten 90 urte betetzen dituzten bazkideei omenaldia egiteko aprobetxatuko dute eguna. Beste batzuetan 90 urtetik gora dituzten bazkide guztiak omendu izan dituzte, baina gero eta gehiago direnez, oraingoan 90 urte aurten betetzen dituztenek bakarrik jasoko dute. Hamar inguru dira, eta dantzariak aureskua dantzan egin ostean opari txiki bat emango diete Basotxoko zuzendaritzako kideek. Omenaldia 17:00etan izango da, eta bukatutakoan merienda eskainiko dute bazkide guztiendako: txokolatea bizkotxoekin.



K21

AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 - 610

Zoru aukera zabala,
tarimak,
parket flotatzailleak,
parket bernizatuak
eta estratifikatuak.

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



Hirusta Jateetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



LURRINDEGIA OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Bikain ibili dira aretxabaletarrak Euskadiko Trialsin Txapelketan

M.A.

Azaroaren 20an jokatu zuten Euskadiko Trialsin Txapelketari zegokion azken proba Ormaiztegin. Markel Uriarte, Aitor Murua, Itziar Murua, Unai Zuntzunegi eta Iker Mendikute aretxabaletarrak ibili dira, eta ederto bukatu zuten guztiek txapelketa.

Trialsin-zaleak ugaritu egin dira azken urteotan herrian. Hala, talde polita osatu dute Markel Uriarte, Aitor Murua, Itziar Murua, Unai Zuntzunegi eta Iker Mendikutek. Nork bere mailan jarduten du, eta Euskadiko Txapelketa bukatu berri dute, ederto bukatu ere.

SAILKAPENEO LEHEN POSTUETAN

Martxoan hasi zuten Euskadiko Txapelketa Erreterian eta azaroaren 20an bukatu zuten Ormaiztegin. Tartean beste bost proba egin dituzte eta puntuak batu azken sailkapena osatzeko. Markel Uriarte infantilen mailan ibili da aurtan, eta laugarren geratu da sailkapenean. Aitor Murua, ostera, alebinekin jokatzen du eta bigarren geratu da, baita emakumeen taldean dabilen Itziar Murua eta hasiberrietan dabilen Unai Zuntzunegi ere. Iker Mendikute ere hasiberriekin ibili da eta txapelketako proba guztiak ez jokatu arren, aurreko postuetan geratu da. Aipatzekoa da Aitorrek irabazi egin zuela alebinen mailako Ormaiztegi proba, hau da, azken proba.



GURUTZE URRUTIA

Markel Uriarte, Unai Zuntzunegi, Iker Mendikute, Itziar Murua eta Aitor Murua.

MARTXOAREN 5EAN ARETXABALETAN

Orain hiruzpalau urte Markel eta Nagore Uriarte anai-arrebek bakarrik jarduten zuten trialsi-

nean. Gipuzkoako Txapelketako proba bat Aretxabaletan egiten hasi zirenetik, baina, taldetxo osatu dute, eta gero eta gehiago dira. Datorren urtean ere egingo dute Gipuzkoako proba bat herrian, martxoaren 5ean hain zuzen, eta Arantzazun beste bat, martxoaren 19an. Markelek mailaz igo eta kadeteekin jokatuko du urtarriletik aurrera. 13 urte dituen Nagore arrebak, ostera, albora utzi du bizikleta, baina ez trialsin txapelketak; izan ere, epaile lanak egiten ditu joaten den proba guztietan.

Datorren urtean ere egingo dute Gipuzkoako proba bat herrian, martxoaren 5ean

LABUR

Liderraren aurka jokatuko du bihar areto futboleko UDA-Mercedes Goiko Leniz taldeak

Partidu gogorra dauka UDA-Mercedes Goiko Leniz taldeak bihar, zapatua. Liderra hartuko du kirol etxean, 17:00etan: Anoetako Gazte Asanblada, hain zuzen. 3-2 galdu zuten aurreko partidua aretxabaletarrek Amara KEn aurka, nahiz eta joko hobea egin eta gol aukera gehiago izan; hortaz, partidu garrantzitsua da biharkoa. Gogotsu aterako dira UDAkoak jokatzerara, eta eskertu egingo dute zaleen berotasuna.

Mailaz ez jaisteko irabazi egin behar dute Errasti anaiek eta Lasagabaster-Altzolak

Bukatu dute liga senior mailako pilotariak, eta jaitsiera postuetan geratu dira bikote bi. Errasti anaiek Bergarako eta Añorgako bikoteen aurka jokatuko dituzte partidua, eta hiruretako bat jaitsiko da bigarren mailara. Gaur, 19:00etan, daukate lehen partidua bergararren aurka. Lasagabaster eta Altzolak, berriz, partidu bakarria jokatuko dute gaur, 20:00etan, Lazkaon, eta galduz gero 3. mailara jaitsiko dira.

Aitor Alcaide bigarren eta Esteban Romero hirugarren geratu ziren Oñatiko txapelketan

Oñatiko Nazioarteko XI. Xake Txapelketa jokatu zuten joan zen domekan, eta aretxabaletarrek bikain jardun zuten: Aitor Alcaide bigarrena izan zen eta Esteban Romero hirugarrena. 27 jokalaririk elkartu ziren Oñatiko gaztelekuan, eta Azer Mirzoev-ek irabazi zuen txapelketa.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Hondarribia

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Arizm.-Antzuola

Lehen mailako gazteak.

Zapatua. 16:00 Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Bergara

Lehen mailako seniorrak.

Egubakoitza. 19:00. Iturigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Anaitasuna 1 UDA 0

Preferentea.

UDA 7 Gazteak 2

Bigarren mailako erregionala.

UDA/Arizm. 2 Sto. Tomas 4

Ohorezko gazteak.

Ilintxa - UDA/Arizm. -

Lehen mailako gazteak.

UDA/Arizm. 4 Euskalduna 0

Lehen mailako kadeteak.

UDA/Arizm. 5 Soraluze 0

Bigarren mailako kadeteak.

Lengokoak 4 UDA/Arizm. 0

Ohorezko infantilak.

Antiguoko 5 UDA/Arizm. 0

Infantil txikiak.

Elgoibar 4 UDA 0

Alebinak

UDA/Arizm. 2 Gasteiz Cup 0

Emakumezkoen liga (seniorrak).

UDA/Arizm. 4 Bergara 3

Emakumezkoen liga (kadeteak).

Amara 3 UDA-Mercedes Goiko

Leniz 2

Areto futbola.

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Leire Pagaldai Elkorobarrutia • Dietista
Errekabarren 16, boxua • Tel.: 675 71 37 92

elikadura eta dietetika

Balorazio antropometrikoa

Pazienteak egunean jan duenaren balorazioa

Nutrizio balorazioa

Nutrizio tratamenduak (dieta pertsonalizatuak)

- Pisuaren kontrola

- Elikadura ohiturak

- Kirolariak

- Haurdunaldiak

- Elikadura nahasteak:

Anorexia, bulimia eta loditasuna.

-Gaixotasunak:

Diabetesa, hipertentsioa, urdaileko ultzerak,

osteoporosia, hiperkolesterola,

zeliakoa, giltzurruneko gutxiagatasuna ...

Jarraipena

Mantentzea

ATREBENTZIAEZPADA/ Urtarrilletik aurrera ezingo da erre lantoki eta tabernetan. Ze pentsetan jatzu?



ROSA DEL AGUILA
Langillie



MANUEL ABRIL
Jubilaue



ELENA MARTINEZ
Langillie



JAIONE GONZALEZ
Langillie



ESTEBAN ARANA
Jubilaue



ASUN GABIRIA
Langillie

Oso ondo pentsetan jat. Erretzailliek erre barik egon leikiela seguru nau; izen be, nik ezautu neuen haurdunaldi danien erre barik egon eta umie euki orduko hasi zana.

Asko poztu naz lege horren barri izen dotenien. 30 urte inguru daroiet erre barik eta molestau egitten dust keiek. Erretzailliendako gogorra izengo dala pentsau eta egokitu daixela guniek.

Ondo pentsetan jat, baiñe nik ez dot erreten. Erretzailliendako lekuek egokitzie ondo pentsetan jat; hori bai, jakin egin biher daue nora fan erreten eta errespetau.

Gogorregixe pentsetan jat. Lan lekuetan behintzet erreteko lekuek egon biherko leukie, langilliek poliki-poliki ohittu daittezen. Uste dut arazo bat baiño gehixau sortuko dala urtarrillien.

Nik neuk ez dot erreten, baiñe oso gogorra pentsetan jat. Erretzaillie izen nitzen eta orduen oso gogorra izengo zan neuretako. Erre ahal izeteko lekuek jartie ondo egongo litzake.

Diskriminatzaillie dala erretzailliendako uste dot; lekuren bat egokitu biherko leukie erretetako. Gaiñe- ra, lan leku askotan ez daki- xie ze pasauko dan urta- rillien, ez dutzie ezer esan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IZUGARRIZKO UR PUTZUA Euri jasa handiak izan ditugu egunotan eta ur putzuak aurkitzea ez da berria. Trenbidean sortzen den ur putzu hori, baina, alde batetik besterainokoa da. Bai oinezkoek, bai korrikalariek kostata pasatu behar izaten dute, eta sarritan oinetako eta praka barrenak busti-busti eginda. Ez dakit konponbide samurra daukan, baina eskertuko lukete, seguru. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Atxabaltarrok taldearen aurkezpen ekitaldia

Independentziaren alde eta sasi Bush guztien gaintetik, autodeterminazioa aldarrikatuz azaldu zen Atxabaltarrok taldea prentsa-aren aurrean. 30 lagun inguru elkartu ziren eta Euskal Herriak bizi zuen egoera oso latza zela adierazi. Herritarren laguntza eskatu zuten ekitaldiak egiteko.



ASTEKODATUA

12

LAGUN MURRUKIXOK ANTOLATUTAKO BAZKARIAN


Mendi irteera eta babarrun jana antolatu zituen Murrukixo MEK joan zen domekarako. Kurtze- barrira joan ziren elurretan ibiltzera hainbat lagun. Bazkaltzen 12 bakarrik geratu ziren.

BESTEKEESANA

2001ean Europa mailako proiektu baten parte hartu genuen, hondeatzeko makina hidrauliko baten simulagailu prototipo bat eginda. Simulagailuak langileen heziketan erabil daitezkeela erakusteko balio izan zigun. Ikerlanek proiektu horretan beste hainbat elkarterekin parte hartu zuen. Geroago, eta haren ondotik, lan segurtasunaren ariora aplikatu- tako proiektua bultzatzea erabaki dugu, eta onartu egin dute. Proiektua hainbat lan jardune- tan banatu dugu. Enpresa elkartei dagokie simulagailuak nolakoak nahi dituzten zehaztea. Eurek badakite non dauzkaten premiak, eta, hain justu, lan arrisku horiek saihesteko simulagailuak.

ANA MARTINEZ
'Astelheheneko Goienkaria'/05-11-28

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Ekin eta jarrai

Franco hil zenetik 30. urte-urrenaren bihamune- an, Espainian inoiz egon den epaiketarik handiena omen dena hasi zen.

Epaiaketa diot, nolabait deit- zearren, Euskal Herrian gehie- nok (PP eta PSOE ezik, jakina) garbi daukagu eta justiziarekin baino gehiago politi- karekin zerikusia duen zerbait dela hiz- kuntza eta ekintza ju- dizialez mozarrotu den eraso hau.

Beste zerbaitetan ere ados jarri dira al- derdi gehienak. PPri eta Garzoni egotzi die astakeri honen eran- tzukizuna. Ba ni ez nator bat. Antza denez ahaztu egin dugu ez dela Baltasar izan "dena ETA da" teoriaren asma- tzailea. Ez dugu gogoratu nahi ez- ta, PPko gobernuak eraso dituen erakunde denak edo gehienak au- rretik ere erasoak jasan dituztela.

Egunotan irakurri dudan arti- kulu batean, Ardanzak eta Atu- txak *Eginen* aurka egindako adie- razpen batzuk gogorarazten zi- ren. Egunkari horren kontra Gasteizko gobernu ezberdinek burutu izan duten boikota (legez

kanpoko) ere gogora ekar gene- zake. Edo AEK-k jasan izan due- na. Ez dut ahaztu nahi barne sail- buru ezberdinek JARRAI edo AABak kriminalizatzeko eginda- ko ahaleginak, ezta ere PNVk, EA eta PSOEekin batera, HB bazter- tu eta desagerrarazteko eginiko saioak, hainbat herritako alkate- tzak kenduz ere (Are- txabaletan, kasu).

Eta ahaztu egin behar ote dugu baita *Egunkariak* izan zuen lehen etsaia, jaio au- rretik jada, PNV bera izan zela? Gure alder- dirik katolikoena abortozale agertu zi- tzaigun.

Egia da PP izan dela hainbat eta hainbat urrats ematera ausartu dena, baina eraiki duten gezur handi honen oinarriak aurretik ezarriak zeudelako izan du posible.

Agian norbaiti pistak ematen ari naiz, baina harritzen nauena zera da, idatzi honen izenburua lelotzat duen Euskaltzaindia nola ez duten oraindik auzitara era- man. Dena ETA baldin bada, era- kunde honek hiru aldiz ETA behar du izan.

Nire elkartasuna auzipetuei!

"Antza denez ahaztu egin dugu ez dela Baltasar izan dena ETA da teoriaren asmatzailea"

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a / 233. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Abenduaren 26an inauguratuko dute gaztelekua pilotalekuan

IKER BARANDIARAN

Udalaren asmoa da abendu bukaeran inauguratzea gaztelekua. Pilotalekuko lokal batzuetan kokatuko dute, eta 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako izango da. Lehenengo ikasturtean egubakoitzetik domekara egongo da zabalik zerbitzu hori.

2004an Eskoriatzako Udala gazteria politika aztertzen hasi zen. Udalak egindako azterketaren arabera, iaz 12 eta 16 urte bitarteko 140 nerabe bizi ziren herrian, 68 neska eta 72 mutil. Udalaren esanetan, gazte talde horrek aste barruan ez dauka aisialdirako denbora nahikorik. Asteburuetan, berriz, denbora libre luzeen dutenean, alokatutako lokal pribatuetan, Udalak utzitako lokaletan, leku ezkutuetan edo tabernetan elkartu eta ibiltzen dira.

Hala, Udalak erabaki zuen gazte talde horrendako beste zerbitzu bat sortzea: gaztelekua, hain zuzen. Eta pilotalekuan hutsik dauden eta elkar komunikatuta dauden lokal batzuetan kokatzea erabaki zuten: pilotalekuaren tabernan eta txistularien lokalean.

EGUBAKOITZETIK DOMEKARA

Udaleko Gazteria Sailak erabaki du zerbitzua egubakoitzetik domekara bitartean ematea. "Premia handiagoa dagoela ikusten badugu, zerbitzua egun gehiagora luzatuko dugu, baina jakin badakigu aste barruan adin horretako gaz-



Luis'Ezeiza eskolaren parean jarriko dute, eta 12 eta 16 urte bitartekoendako da. Argazkian, etorkizuneko erabiltzaileak.

teak oso lanpetuta daudela", azaldu zigun Udaleko Gazteria teknikari Mainer Etxanizek.

Gazteria Saileko arduradunek uste dute gaztelekua leku oso aproposan dagoela, "erdigunean dagoelako, Luis Ezeiza eskola parean daukalako eta berez pilotaleku

inguruan gazte asko egoten delako, besteak beste".

Etorkizunean lokal gehiago erabiltzeko asmoa daukate, baina momentuz aipatutako biak erabiliko dituzte. Honako baliabideak izango dituzte: telebista, DVDa, musika entzuteko aparatua,

mahai-futbola, mahaiak, jarlekuak, eta abar. Horrez gainera, bestelako ekimenak ere egingo dituzte, bai lokalean eta baita handik kanpo ere.

GAZTEEN GUSTURA APAINDU

Aipatutako moduan, abenduaren 26an inauguratuko dute gazteendako zerbitzu berria. Hori baino lehenago, hilaren 15ean, berbaldia egingo dute kultura etxean, gura duten herritar guztiei gaztelekua eta haren funtzionamendua azalzteko. 18:30ean izango da.

Gaztelekua atonduta inauguratuko dute, baina gazteek aukera izango dute euren gustura apaindu eta margotzeko.

*Udaleko Gazteria
Sailak 12 eta 16 urte
bitarteko
gazteendako sortu
du zerbitzu hori*

*Hilaren 15ean
berbaldia egingo
dute kultura etxean
gaztelekuaren
gainean*

LABUR

Benito Lertxundik atzeratu behar izan du kontzertua


Gaur, egubakoitza, Benito Lertxundik kiroldegian egin behar zuen kontzertua bertan behera gelditu da. Hala eman ziguten aditzera, eguazten iluntzean, Udaleko Euskara eta Kultura Sailek.

Lertxundi gripeak jota gaixorik dago, eta hainbat kontzertu bertan behera utzi behar izan ditu. Horien artean Eskoriatzako.

Udaletik aditzera eman digute beste data bat hitzartu dutela. 2006ko urtarrilaren 13an emango du kontzertua Lertxundik kiroldegian, eta txartel berak erabili ahal izango dira. Hala ere, datozen egunetan zehaztuko dute dirua berreskuratu gura dutenek noiz eta nora jo beharko duten.

Bihar, zapatua, Euskararen Eguna ospatuko dute

Aurtengoa da egun hori ospatzen duten bigarren aldia. Iaz mural handi bat jarri zuten herriko plazan, eta esaldiak eta marrazkiak zintzilikatu zituzten. Bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era jolasak eta tailerrak izango dira herriko plazan. Eguraldi txarra egiten badu, kultura etxeko aretoa erabiliko dute. Eta 17:30ean, euskal dantzak egingo dituzte eta Arizmendiko gazteak bertsotan ibiliko dira.



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastanadul suzua 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kinrol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Avroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deliak	112

OHARRAK

BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA ATZERATUTA

Benito Lertxundi gaixorik dagoelako, gaur, egubakoitza, eman beharreko kontzertua atzeratu egin behar izan dute. 2006ko urtarrilaren 13an egingo dute kiroldegian. Txartel berdinak erabili ahal izango dira, baina dirua berreskuratu gura duenak horren aukera izango du. Laster azalduko dute noiz eta non emango duten.

BIHAR, ZAPATUA, EUSKARAREN EGUNA OSPATUKO DUTE

Bihar, zapatua, Euskararen Eguna ospatuko dute. 11:00etatik 13:30era umeendako jolasak eta tailerrak egingo dituzte herriko plazan. Eguraldi txarra egiten badu, kultura etxeko aretoan egingo dituzte. Horrez gain, 17:30ean, euskal dantzak egingo dituzte herriko plazan. Beheko Errota musika eskolako gazteek dantza egingo dute. Horren ostean, Almeneko ikasleek bertsoak abestuko dituzte.



Argazkian, Juan Carlos Bengoa alkatea Dorletako lanen gainean azalpenak ematen.

Hiru enpresa aurkeztu dira Dorleta auzoa eraberritzeko

IKER BARANDIARAN

Dorleta auzoan lan garrantzitsuak egiten dabilta aspaldian. Bigarren fasean etxebizitzak aurkeztu dituzte eskaintzak. Gai hori batzordean landu ondoren, osoko bilkuran erabakiko dute.

Agintaldian Udalak herriko bi auzo eraberritzeko proiektu garrantzitsuak dauzka eskuartean: batetik, Santa Ana; eta bestetik, Dorleta.

Santa Anako lanak hasita daude eta Amaral enpresak hartu zuen horren ardura. Hala ere,

hainbat herritarrek lan horien atzerapena salatu izan dute.

Dorletari dagokionez, lehenengo fasea, aparkalekuei dagokiona, abian da. Bigarren fasea, berriz, hastear dago. Etxebizitzak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, enpresen eskaintzak jasotzeko epea astelehenean bukatu zen.

Udalak gehienez onartuko duen aurrekontua 1.905.000 eurokoa izango da. Orain udal batzordeak hiru enpresek (Fonorte, Murias eta Amaral) egin dituzten eskaintzak aztertu beharko dituzte. Horren gaineko erabakia hurrengo osoko bilkuran emanango dute.

LABUR

Etxebizitza hutsak errentan jartzeko Bizigune programaren gainean aritu ziren

Atzo, eguena, Eskoriatzako Udalak eta Jaurlaritzak iaz hitzartutako Bizigune programaren gaineko berbaldia egin zuten kultura etxean. Berbaldiaren helburua zen alokatzeko moduko etxebizitza hutsak dituzten herritarrei programa horren gaineko informazio zabala ematea. Hau da, etxebizitza horiek zer baldintzatan alokatzen dituzten, Jaurlaritzak etxeetako jabeek zer berme eman dien eta beste ohar batzuk.

Horren bitartez bultzatu gura dute herrian hutsik dauden etxebizitzak irteera ematea eta etxebizitza bila dabiltzanei aukera gehiago ematea.

Berbaldian Udaleko, Jaurlaritzako, Suradesako eta Mankomunitateko ordezkariak esku hartu zuten, eta hainbat azalpen eman zizkieten herritarrei. Laster emango dituzte programa horren gaineko lehenengo datuak.

Osoko bilkuran hartutako erabaki garrantzitsuenak

I.B.

Osoko bilkuran erabaki zuten Mendiolako pinudia Forestal Elorriori saltzea; eta Santa Marina auzoko urbanizazioa eta etxeak eraikitzeke lanak Visesa enpresari esleitzea, besteak beste.

Aurreko astean osoko bilkuran hartutako erabaki batzuk ezin izan genituen aditzera eman. Hor-taz, hemen laburbildu ditugu.

Udalak Mendiolako pinudia Forestal Elorrio koop. enpresari salduko dio 146.060 eurotan (BEZa barne). Hiru enpresa aurkeztu ziren (Donostiako Central Forestal, Legutianoko Aserradero San Blas eta Forestal Elorrio) eta Elorriokoak egin zuen eskaintza onena, eta 12 hektarea eskuratuko ditu.

Bestalde, Udalak Visesa eta Orubide enpresei esleitu dizkie

Santa Marinako etxebizitza tasatuen eraikuntza eta inguruaren urbanizazio lanak. Lehiaketa horretara ere hiru enpresa aurkeztu ziren (Visesa-Orubide, Gedi eta Arrasate Inbertsioak).

Urbanizazio proiektua dagoeneko onartuta dago, eta 15 bat egunetara Udalak eta Visesa-Orubide kontratua sinatuko dute lanak abian jarri ahal izateko. Kontratua sinatzerakoan epeak zehaztuko dituzte. Udalaren asmoa da etxebizitza tasatuak ahalik eta lehen eraikitzea.

BERDINTASUNAREN ALDEKO MOZIOA

Ezker Batua taldeak berdintasunaren aldeko mozioa aurkeztu zuen. Horren arabera, elkarteek eskatuko zaie horren alde egitea dirulaguntzak jasotzeko.

Horrez gain, Santa Anako autobus geltokia eta markesina, biak hala biak, aldatu beharko dituzte datozen egunetan.



Luis Ezeizakoek lagunak egin dituzte Toledon

Luis Ezeiza eskolako hainbat ikasle Toledon izan ziren orain dela bi aste. Astebete pasa zuten han eta Sevilla eta Zaragozako ikasleekin batera hainbat ekimen egin zituzten. Kontatu digutenez, ikasleak bidaia egiteko desatzen zeuden, eta oso pozik etorri dira Andaluzia eta Aragoi aldeko beste gartetxoekin bizi izandako abenturekin. //I.B.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



MIRENTXU
TABERNA


Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

SAION DE BELLETA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko abenduaren 2a / 174. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udalbideri laguntzearren errekurtsioa Udalaren kontra

UBANE MADERA

Laugarren aldiz errekurtsioa ipini du Estatuko abokatuak Aramaio Udalak hartutako erabaki baten kontra. Horren ondorioz, Udalak epaiketa edo bista izango du. Urtarrilaren 31n ipini dute hitzordua, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Salan, 12:30ean.

Mertxe Mondragon alkatea bera joango da bistara, Aramaio Udalaren izenean. Esan digunez, Udalaren abokatuak dagoeneko badabilta Udalaren defentsa prestatzen.

ESKUMENAK ETA POLITIKA

Estatuko abokatuaren demandan arabera, 2005eko martxoan, Udalbide Elkarlan Elkarteari 2.400 euroko laguntza ematearren ipini diote errekurtsioa Udalari. Udalbide da Udalbiltzak sortutako elkarteak.

Demanda arrazoitzeko, bi argudio ematen ditu Estatuko abokatuak: batetik, dirulaguntza hori ematea ez dela Aramaio Udalaren eskumena; eta bestetik, dio dirulaguntza horrekin



Orain arte beste hiru bider ipini diote errekurtsioa Udalari; argazkian, udaletxea.

Aramaio Udalak interes politikoak defendatzen dituela, interes publikoa defendatu beharrean. Halaber, Estatuko abokatuak zalantzan ipintzen du Udalbide elkartearen zilegitasuna.

LAUGARREN ERREKURTSIOA

Lehen esandako moduan, laugarren aldia da Estatuko aboka-

tuak Aramaio Udalaren kontrako errekurtsio bat ipintzen duela. Berria egunkariari dirulaguntza ematearren, presoen senideei dirulaguntza ematearren eta presoen aldeko pankarta bategatik ipini dizkiote beste hiru errekurtsioak. Hiru horietatik bat irabazi egin zuen Udalak (presoen senideena); beste bat galdu

egin zuen (Berria egunkariarena) eta hirugarrena (presoen aldeko pankartarena) bertan behera utzi zuten, formazko akatsengatik.

EUSKARAZ BIDALTZEAGATIK

Horrenbeste errekurtsoren aurrean, Aramaio Udalean susmoa dute ez ote dieten hori egingo Arabako herri bakarrenetarikoa delako Udaleko aktak euskaraz bidaltzen dituelako Gasteizko Gobernu Zibilera.

OSOKO BILKURA

Bestalde, Udaleko kontuekin segituz, eguaztenean ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrrak. Gai zerrendan, besteak beste, Zabola eta Untzilla auzoen arteko errepideko lanak zeini adjudikatu erabakitzeke zuten; Udalaren argazki lehiaketaren berri ematekotan ziren eta zenbait dirulaguntza aztertzeke zituzten zinegotziek. Horrez gainera, Jon Agirre presoen aldeko mozio bat ere aztertu behar zuten.

Edozelan ere, albistea idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu duten zinegotziek.

LABUR

'Bide eginez' izeneko eztabaida aurkeztuko dute

Batasuna alderdiaren presuaren barruan egiten dabilta eztabaida aurkeztuko dute gaur. 19:00etan da hitzordua, kultura etxean. Besteak beste, alderdiko mahai nazionaleko kide batek egingo du berba. Antolatzaileek interesa duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Bagare lehiaketako kanporaketa eta finala, atzeratuta

Bagare bertsolari lehiaketako hirugarren kanporaketa, joan zen barikuan jokatu beharrekoa, bertan behera utzi zuten, eguraldi txarraren ondorioz. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, kanporaketa hori abenduaren 9an jokatu dute, Gasteizen, Bagare elkartearen. Hor lehiatuko da Iker Agirre aramaioarra. Eta finala ere atzeratu egin dute; abenduaren 15ean izango da, Gasteizen, Ramon Bajo ikastetxean.

Etxez etxeko laguntzaile izateko bi lagun behar dira

Zuiako koadrilak egin du lanpostu bi horien deialdia. Haren arabera, bi pertsona behar dira Ubidean (Araba eta Bizkaia arteko mugan, Barazar hasi baino lehenago) etxetzeko laguntzaile izateko.

Bi baldintza eskatzen dituzte: etxetzeko laguntzaile titulua edo antzekoa eta esperientzia izatea.

Eskaini, berriz, honakoa eskaintzen dute: kontratua eta alta Gizarte Segurantzaren. Eta ordutegiari dagokionez, pertsona batek goizez egin beharko du lan eta besteak arratsaldean. Bi kasuetan, bost orduko lanaldiak izango dira. Ordainsaria, berriz, adostu egin beharko dute.

Interesa duenak honako telefonora deitu behar du: 945 43 01 67 (Oihanarengatik galdetu).

Oletan ordezkari berriak aukeratu zituzten joan den domekan

U.M.

Kontzejuetako hauteskundeak egin zituzten Arabako Lurralde Historikoan. Eta Oletak kategoria hori du: kontzeju izaera. Horrek esan nahi du zenbait funtzio auzotarrek osatutako ordezkariak hartzen dituela, eta ez herriko Udalak.

Esaterako, oletarrek eurak arduratzen dira, batez ere, obrekini eta hirigintzarekin lotutako gaiekin, kultura kontuekin, aisialdikoekin... Hain zuzen ere, gai horien gainean eskaerak egiteko eskumena dute.

Hala, auzoaren funtzionamendurako ordezkariak izaten dute. Eta ordezkariak hori aukeratzeko hauteskundeak egiten dituzte lau urtean behin.

Bada, joan den domekan tokatzen zitzaizen oletarrei botoa emateko,

11:00etatik 15:00etara bitartean. Auzoko alkatea eta batzordekidea aukeratu behar zituzten. 18 urtetik gorako 103 lagun zeuden errolatuta. Horietatik 35ek eman zuten botoa, Oletako elkartearen. Kandidatura jakinik ez zego-

enez, boto gehien eskuratu dituzten bi auzotarrek izango dira gainerako auzotarren ordezkari. Hala, auzotar batek 22 boto eskuratu zituen eta beste batek 18. Orain, biek bost eguneko epea dute karguak onartzeko edo atzera botatzeko. Bietako batek, Kepa Uribarren arrasatearrak, dagoeneko esan du onartuko duela.

Azken sei urteotan Esther Uriarte izan da auzoko alkate. Izan ere, orain dela bi agintaldi dimititu egin zuen alkateak, eta agintaldi haren azken bi urteetan eta hurrengo agintaldian, berriz, Esther Uriartek hartu zuen haren kargua.

Lau urterako izendatuko dituzte auzoko alkate eta batzordekide berriak, 2009ko azarora arte

Azken agintaldian eta aurrekoaren erdian, Esther Uriarte izan da Oletako alkatea

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bozka	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaizua (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzotako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan ez dute filmik emango bariku gauean.

DOMEKAKO ZINEMA

Abenturazko film bat aukeratu dute oraingo domekako umeen saiorako: *Batman Begins*. Izenburuak dioen moduan, superheroi ezagun horren gaineko filmaren bigarren zatia da. Akzio handia du. Besteak beste, Christian Bale, Michale Caine, Morgan Freeman eta Liam Neeson aktoreek parte hartzen dute, Christopher Nolan zuzendariaren gidaritzapean. Betiko moduan, saioa 17:00etan hasiko da.

UDALAREN OHARRA

Datorren astearen erdialdean bi jaiegun daudenez, Aramaioko Udaletik zera jakinarazi digute: udalategia zabalik izango dela astelehenean eta barikuan. Edo bestela esanda, martitzenean, eguaztenez eta eguenean itxi egingo dutela. Zabalik egongo den egunetan goizeko ordutegia izango du: 09:00etatik 14:00ak arte.

Haur eskola zerbitzua atzeratu egingo dela esan zieten gurasoei

U.M.

Joan den egunean, San Martin Eskolako umeen gurasoek batzarra izan zuten eskolan. Besteak beste, Haur Eskola zerbitzuaren gainean, alkateak jakinarazi zien enpresarik ez dela aurkeztu lan hori egiteko, eta horren ondorioz, atzeratu egingo dela zerbitzu hori Aramaion.

Mertxe Mondragon alkatearen esanetan, badirudi Haur Eskola zerbitzurako eraikina egiteko ezarri duten prezioarekin arazoren bat dagoela. Beraz, berriro ere tasatu eta berriro deitu beharko dute lehiaketa, obra hori adjudikatzeke.


ZUZENDARIAREN TXOSTENA

Horrekin batera, eskolako zuzendariaren, Blanka Mendialduaren txostenean, aurten ikasleak egiten dabilzan proiektuak gogora ekarri zizkieten gurasoei. Horrekin batera, eskolan egiten dituzten jaiak, irteerak eta bestelako ekintza berezien berri ere eman zien. Kontuen balantzea ere egin zuten.

IRAKASLE BERRIAK ETA WEB ORRIA

Bestalde, eskolako irakasle berriak aurkeztu zituzten. Jakinarazi zuten, hemen ingurukoak dira, Eskoriatzakoak, Arrasatekoak eta Bergarakoak, hain justu ere. Oraingoan, aurtengo ikasturterako izango dira eskolan.

Era berean, Goieskolaren bitartez, San Martin Eskolak duen



Eskolako liburutegian egin zuten gurasoek batzarra, joan den egunean.

Jakinarazi zuten eskolako irakasle berriak hemen ingurukoak direla

web orria erakutsi eta haren erabilera esplikatuz zieten gurasoei. Helbidea honakoa da: www.goieskola.net/aramaio. Besteak beste, webgune horretan ikus daiteke eskolako egutegia; ikasleen ekin-

San Martin Eskolak duen web orriaren berri eman zuten: 'www.goieskola.net/aramaio'

tzak argazki eta guzti; ikasleen lanak; gurasoendako txoko berezia ere bada... Oro har, eskolaren gaineko informazio dezente osotu eta eguneratua eskuratzeko aukera ematen duela esplikatuz zieten.

KOLABORAZIOA/San Martin Eskolako ikasleen ekarpena



Azaroa izan arren, elurpean ibili ginen

Gezurra dirudi oraindik udazkena izanik ere Aramaioko kaleak elurrez zurituta aurkitzea. Kontuak kontu, joan den barikuan, azaroaren 25ean, Aramaioko inguru guztiak, leku baxuenak ere, zuri-zuri eginda aurkitu genituen. Zapatuan elurra mara-mara bota zuen goiz guztian eta arratsaldera atertuz joan zen. Igandean, berriz, hotz handia egin zuen, baina ez zuen elur-mataza handirik bota; behealdean, gainera, euria egin zuen.

Urte honetan azkar hasi du elurra egiten. Ez du askorik egin, baina jolasteko adina bai. Horrela, gustura ibili ginen guztiok elur pilotaka. / 6. MAILAKO ASIER, IZAR, MIKEL ETA IZARO.

LABUR

Odola ematera joateko deialdia egin dute

Arabako Odol Bankutik egin dute deia. Hala, aramaiorrek datorren eguaztenez, hilak 7, dute odola ematera joateko hitzordua. Ordutegia betikoa izango da: 16:30etik 20:00ak arte, anbulatorioan.

Txartel bat aurkitu dute kultura etxeko igogailuan

Udaletik helarazi digute ohar hori. Esan digutenez, ateak zabaltzeko txartel horietako bat da. Galdu duenak udalategian eska dezake, hantxe gorde dute-eta.

Xake eta briska txapelketak, gazteen eskutik

Aramaioko Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatuta, bihar, zapatua, jokatuko dituzte xake eta briska txapelketak. 16:00etan hasiko dira, San Martin Eskolako jangelan. Parte hartzeko interesa duenak ez du izena eman beharrik, hantxe agertuta nahikoa du.

KZguneko ordutegia eta mintegiak

KZguneko tutoreak jakinarazi digunez, bi aste barru etorriko da Aramaioko KZgunera, hain zuzen ere, abenduaren 12an eta 16an, 16:00etatik 20:00etara. Tarte horretan, Internet erabili nahi duenak KZgunera joan besterik ez du.

Horrez gainera, bi egun horietarako honako mintegiak antolatuta dituela ere jakinarazi digu Aitor Madrid tutoreak: abenduaren 12an, *Enplegu bat lortu*. Internet erabilia lanpostuen berri zela izan esplikatuko du. Ikastaro hori 16:00etan hasiko da, 18:00ak arte. Interesa duenak badu lekua.

Abenduaren 16an, berriz, *Etxetik eros ezazu izenekoa* mintegia egingo dute. Kasu honetan, Internet erabiltzen erakutsiko du, izenburuak dioen moduan, etxe bat erosteko. Hori 18:00etan hasiko da, 20:00ak arte. Interesa duenak hor ere badu lekua.

Informazio gehiago behar izanez gero, tutor.aramaio@kagunea.net helbidea erabil daiteke edo honako telefonora deitu: 943 79 94 44 (09:00etatik 13:00ak arte).

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a / 30. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

ROSA URRETA/ LEINTZ GATZAGAKO GARRAIOAREN KOMISIOKO KIDEA

“Ibarrean proiektu handien gainean berbetan, eta hemen autobus bat ere ez”

XABIER URTZELAI

Gatzagako taldeek osatzen duten garraioaren komisioko kide da Rosa Urreta. Herritarrek Diputazioari egindako eskaeren gainean ibili gara berbetan, eta baita Leintz Gatzagaren egoeraren gainean ere.

Gatzagarrek hainbat eskaera egin dizkiozue Diputazioari.

Eskaera argiena da garraio publikoa gura dugula, autobusak gura ditugula. Debagoieneko gainontzeko herrietan badute zerbitzu publiko hori, eta hemen ez.

Eta zelan konpondu hori?

Ez da horren zaila. Ibilbidea apur bat aldatzarekin, nahiko. Hau da, Gasteizera doazen eta Gasteiztik datozen autobusak Arlabanetik igaro beharrean, pasa daitezela Gatzagatik. Eta, autobus guztiak pasatzea ezinezkoa bada, gutxienez, bi orduetik behin pasa daitezela Gatzagatik.

**Badira hamabost urte herri-
tik pasatzen ez direla.**

Oso kuriozosa da hori. Herriaren gainean dagoen zubia zabalteko lanak zirela-eta, autobusak Arlabanetik pasatzen hasi ziren, eta orduetik ez dira errepide zaharrera bueltatu.

Arlabanen istripuren bat egoten den arte.

Bai, orduan ez dute herritik igarotzeko inongo arazorik izaten, horrek ematen digu barrera. Orain momentuan, autobideko lanak direlako, herriko lanak direlako... egunero ibiltzen dira kamioiak gora eta behera, eta gero esaten digute autobusak ezin daitezkeela Gatzagatik igaro.

Zerk ematen du amorru handiagoo: herrian autobusik ez izatea, ala Debagoienerako dauden proiektuak ikustea?

Benetako amorrua ematen diguna da Gatzaga Debagoienetik aparte dagoen herri bat dela ikustea, ahaztuta dagoen zerbait. Hortxe dabilta API autobidearekin, tranbiaren kontuarekin... Horrenbeste makro-proiektu, eta



XABIER URTZELAI

“Gutxienez, bi orduetik behin autobusa Gatzagatik igarotzea eskatzen diogu Diputazioari”

Gatzagan autobusa ere ez daukagu. Horrekin batera, Diputazioa da, ustez, garraio publikoa bultzatu gura duena, eta garraio publikoa da, hain zuzen, guk eskatzen duguna; zerbaitek egiten du hor kale.

Zer esan gura du autobus barik egoteak?

Etxe bakoitzean bi edo hiru automobil behar izatea. Gaztetxoak autobusean joaten dira ikastetxera, baina 16 urtetik aurrera, Batxilergoa egiteko, moduluren bat egiteko... edozer gauzatarako

“Leintz Gatzaga Debagoienetik kanpo dagoen herria dela ikustekak benetako amorrua ematen du”

gazteek ez daukate zelan irten Gatzagatik; eta, ez dugu asteburuen gainean berba egingo... Nagusiek, berriz, ezin dute medikura, ile-apaindegira edo erosketak egitera joan. Guztiak ez dute gidatzeko baimena, eta gidatzeko baimena ere ez da betirako. Horrek esan gura du automobila daukagunok bueltaka ibili behar dugula.

**Ea lehenbailehen konpon-
tzen den arazo hori.**

Ea Olentzero autobusean etortzen zaigun aurten.



Besteak beste, gatzagarrek Pasaiara egin dute aurten bidaiia.

GUREL elkarteak hainbat proposamen ditu aisialdirako

X.U.

Aste barruan elkartu dira Gurasoen Elkartekoak eta Udaleko ordezkariak. Batzarrean datoren urtera begira egin gura dituzten irteerak ordaintzeko, udalekuak antolatzeko eta bestelako ekintzak egiteko aurrekontuaren gainean ibili ziren berbetan. Eta horren gainean bakarrik ez, GURELeko ordezkariak hainbat proposamen egin zizkieten Udalekoei. Bañetik, pilotalekuaren

gainean egon ziren berbetan. Azken batean, hori da Gatzagarrek kirola egin ahal izateko duten gune bakarra, eta posible da erabilpen handiagoo eman ahal izatea, eta ez pilota jarduerara bakarrik mugatzea. Hala, saskibaloian jokatzeko saskia, rokodromoa... hainbat proposamen bota zituzten. Horrekin batera, GURELekoek uste dute kome-
ni dela herriko parke eta kullunkak konpontzea. Udalak hori guztia aztertu beharko du orain.



Gabonetako pilota txapelketa gertu

Gatzagarrek abenduaren 16ra arte izango dute Gabonetako Pilota Txapelketan izena emateko aukera, eta bikoteko 12 euro ordaindu beharko dituzte. Hala, bikote kopuruaren arabera erabakiko dute txapelketa egun batean edo bi egunetan egin. Izena Labidea dendan eman behar da. / X.U.

GIPUZKOAK AIREBERRITZEKO PREMIA DU.

GU AIRE FRESKOAREKIN GATOZ GOIZERO.

Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

Azaroaren 24tik plazan.



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Atzeko kale 6 behea 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B. 943 77 03 96

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22